

Herririk Herri |4|

Udalak eta Aldundiak akordioa sinatu dabe San Roken biribilgunea egiteko

Ekonomia |10|

Eskualdean %36,8 hazi da langabezia. Industria sektorean eragin dau gehien



Berbaz |9|

Koikili Lertxundi: "Kirolean euskararen erabilera bultzatzea dogu helburu"

Mila sinadura osasun zerbitzua Zelaieta auzoan mantentzeko

- > EAJk eta Muntzarazko auzo elkarteak bildu ditue sinadurak Zelaietako osasun zerbitzua mantentzeko
- > Navarro alkateak, jeltzaleen kritikei erantzunez, osasun zerbitzu zentralizatua proposatu dau

3

Kurutziaga eta Kulturala elkarren kontra, lehenengoz, areto-futbolean

KIROLAK • Bihar emakumezkoen Kurutziagak eta Durangoko Kulturalak derbia jokatu dabe lehenengoz. Kurutziaga taldeak aurtengoa dau estreinako urtea; igaz sortu eben Zornotzako Beti Arin desagertu ondoren. Talde biak goian dabilz eta neurketa lehiatua dago aurreikusita.

25

•lurreta

Bidebarrietan udal zerbitzu gehiago, astelehenetik

7

•Otxandio

Tabernek urte osoan ipini ahal izango ditue terrazak

3

•Elorrio

Udalak sei proiektu bultzatuko ditu Kainaberagaz

6

•Atxondo

Udalak ordainduta, markesina jarri dabe autobus geltokian

8

'Humanitates' giza jakintzaren erakusleio

KULTURA • Artearen historiaren Antzinaroaren eta Erdi Aroko historiari buruzko ikastaroak antolatuko ditu Durangoko Arte eta Historia Museoak. Aurten hiru ikastaro barri eskainiko ditue, Udal Liburutegian: *Matematika*, *Ekonomia* eta *Literatura*. Urtarrilaren 16a arte emon leiteke izena.

12



K.Aginako

Durangaldeko haurreskoletan berrehun umetik gora hartzen ditue

Durangaldea • Haurreskola Partzuergoak lekuan lekuko udalekin geroago eta zentro gehiago zabaltzen dihardu eskualde osoan. Igaz zabaldutako haurreskolekin zerbitzua nabarmen hedatu da. Egun 208 umek dihardu haurtzaindegia publikoetan. Astelehenean matrikulazino kanpaina jarriko dabe martxan, urtarrilaren 29a arte.

2

ALKIMAX

Alquilamos soluciones

Eritza Industingunea
 71C
 48240 BERRIZ
 (Bizkaia)
 94 682 45 50
www.alkimax.com
alkimax@alkimax.com

HERRIRIK HERRI >

DURANGALDEA

Haurreskola publikoen eskaintza ugaritzen doa Durangaldean

2009an zehar Berriz, Atxondo, Otxandio eta Mañarian haurreskola barriak zabaldu zitueen



Durangon EAJk, Aralarrek eta EB-Berdeek Landakon haurtzaindegia barria egiteko akordioa itzi dabe. Kepa Aginako

Astehenean hasi eta urtarilaren 29a arte haurreskola publikoetan izena emonateko epea zabalduko dabe. Durangaldeko familiek inoiz baino aukera zabalagoa izango dabe horretarako; Garai eta Izurtza ez beste herri denetan dago haurreskolaren bat. Izan be, igaz eskualdeko lau herri haurreskola barria inauguratu eben: Atxondon (urtarrilean), Mañarian (martxoan), Berrizen (irailan) eta Otxandion (urrian). Guztira, orain, 208 ume hartzen ditue eskualdeko haurreskola publikoetan.

Hainbat dira, gainera, haurreskolak erabiltzen ditueen familiei zuzendutako diru-laguntzak eskaintzen ditueenak. Durangon, esaterako, lehenengoz bideratu ditue laguntzak arlo horretara, Aralarrek proposatuta ondoren, EAJgaz adostuta.

Igazko urtean zehar Atxondon, Berrizen, Otxandion eta Mañarian haurreskola zabaldu eben

Beste herrietan urteko aurrekontuetan zehaztuko ditue laguntzak, baina Abadiñon, esaterako, ordainketa osoaren %30era heldu ziren 2009an Udalak onartutako laguntzak. Elorri baldintza biren arabera banatzen ditue laguntzak: familiak urteko dituen diru sarren eta umeek Haurreskolan egiten daben ordu kopuruaren arabera. Igaz hasi ziren laguntzak.

Iurretan laguntza 100 eurokoa da umeko urtean. Zaldibarren ez dago haurreskoletarako laguntza zuzenik, baina jaiotzen den haur bakoitzeko 600 euro emoten ditue, herriko dendetan gastatzeko.

Atxondon orain arte ez dabe laguntzarik bideratu, baina igaz eskari bat baino gehiago jaso ebe-eta, eta 2010eko aurrekontuetan hezkuntzarako diru-atal bat gordetzea pentsatzen dabilz. Berrizen, Otxandion eta Mallabian ez dago beren beregi arlo horretarako laguntzarik oraingoz.

Garain Haurreskolarik ez dagoen arren, haurrak daukiezenei laguntzen deutsee. Etxean zaintzaileak izateko laguntza emoten dabe. 0-1 urte bitartekoei 300

euro emoten deutseez eta 1-2 urte bitartekoei beste 300 euro. Beraz, guztira 600 euroko laguntza jaso leiteke. 2006an ipini eben martxan sistema, eta orain arte 12 familiak eskatu dabe laguntza. ■ J.D.

HAURRESKOLA PUBLIKOETAKO UME KOPURUA

Abadiño:	
- Matiena.....	30
- Zelaieta.....	27
Atxondo.....	4
Berriz.....	27
Durango.....	40
Elorrio.....	16
Iurretia.....	17
Mallabia.....	16
Mañaria.....	7
Otxandio.....	6
Zaldibar.....	18
Guztira.....	208

Jostailuen gaineko sentsibilizazioa

Abadiñoko Udalak jarrera sexista eta belikoa sustatzen daben jostailuen aurkako kanpaina egin dau Gabonetako Parkean. Umeei jostailu sexista eta belikoak Traña-Matienako frontoian izteko deia egin eutseen, eta jostailuon truke bestelako jostailuak emon eutseezen.

Bildutako jostailuen artean 45 pistola, ezpatak eta gerrako materiala erreproduzitzen daben jostailuak batu ditue. Genero

Jostailu beliko eta sexisten truke bestelako jostailuak banatu ditue Abadiñoko Gabonetako Parkean

rolei lotutako hainbat jostailu be batu ditue; makilatzeako estutxeak, plantzak eta Barbie panpinak, esaterako. Jolasekumeen garapenean garrantzia handia daukiela nabarmendu dau Argi Abad bardintasuneko zinegotziak: "Gizarte bardinkidea eta indarkeriarik bakoa gura bado-gu, ezinbestekoa da haurrek ez pentsatzea genero bateko edo besteko jolas espezifikoak dagozenik".

Berez sexistak ez diren hainbat jostailu be batu dabe Gabonetako Parkean, eta horreek Kainabera GKEari emotea erabaki dau Udalak, elkarrekin egin dauen jostailu eta janari bilketan batutakoagaz Peruko Acobamba eskualdera bidaltzeko. ■ A.U.

Durangok diru-laguntzak emongo ditu, lehenengoz

Durangon, lehenengoz, haurtzaindegietarako diru-laguntzak eskatu ahaliko dira. Laguntzak emoteko ekimena Aralar alderdiak proposatu eban eta, ondoren, Gobernu Taldeagaz adostu eben.

Diru-laguntzak eskatzeko —beste eskakizun batzuen artean— urteko irabazi likidoek ordenantzak zehazten dabenaren barruan egon behar dabe; Lanbide Arteko Soldata Minimoa halako 1,75ean ipini dabe muga legez (13.104 euro). 2009/10 kurtsorako diru-laguntza horreen diru-atala 18.000 eurokoa da, eta eskaria egiteko epea otsailaren 28a artekoa. Matrikula osoa ordaindu leikie laguntzekin.

Hasieran diru-laguntzak haurtzaindegia publikoei baka-

rrik emotea zen asmoa, baina Aralarrek eta EAJk adostu dabenez, haurtzaindegia pribatua aukeratzen dabenean be eskatu leikie: "Egungo eskaria haurtzaindegia publikoek emoten daben eskaintza baino handiagoa da". Halan be, diru-laguntza eskatu orduan, publikoek lehentasuna izango dabe. Laguntzak erregulatzen dituen ordenantzak jasotzen dauenez, Durangoz kanpoko Haurreskoletara daroiezen umeen familiek be jaso leikie laguntza, beti be, justifikatutako kasuetan: aitak edo amak herri horretan lan egitea...

Bestalde, Durangoko EAJk eta Aralarrek eta Ezker Batua-Berdeek Landakon Haurreskola barria egiteko akordioa be lotu dabe. ■ J.D.

ABADIÑO

Zelaietan osasun zerbitzua mantentzeko sinadura bilketa

Gaztelua, Muntsaratz eta Zelaietako ia mila auzotarren sinaduren babesa

Osasun “zerbitzua orain arte legez Zelaieta auzoan mantentzea eta Matiena auzoko anbulategian sendagile bat gehiago jarri daielea” eskatu dabe martitzenean EAJ alderdiak eta Muntsaratz TSTZ auzo elkar-teak Zelaietako Batzokian deitu

Datozen urteetan 700 biztanle gehiago jasotzea dagoela aurreikusita eta arazoa larritu egin leitekeela dinoe

daben prentsaurrekoan. Eskari horrexegaz bat egiten dabela adierazten daben Zelaietako, Gazteluko eta Muntsarazko ia mila auzotarren sinadurak bildu ditueela eta sinadurok “Osakidetzak iragarritako mediku aldaketak bertan behera itzi daizen lortzeko” pre-



Axier Garate eta Eneko Etxebarria jeltzaleak eta Muntsaratz TSTZ elkarteko Bittor Etxaguren.

MALLABIA

Zainketa arloan lan integrazinoa bultzatu guran

Zainketa arloan formakuntza gura dabenei zuzendutako ikastaro bi eskainiko ditu Udalak. Zainketa arloan lan integrazinoa bultzatzea da helburua.

Lehenengo ikastaroak haurren zainketa lantzen dau, eta bigarrenak menpeko pertsonena, 2010eko lehen seihilabetekoan.

Ikastaroak landa eremuan bizi diren emakumeei zuzenduta dagoz. Langabezian egotea, Lehen Hezkuntzako ziurtagiria izatea, 18 urte baino gehiago izatea eta zainketa arloan esperientzia izatea (pertsonala edo lanean) dira parte-hartzaileek bete beharreko ezaugarriak. Izena emoteko aukera urtarrilaren 21a artekoa da.

Informazio gehiago guraizanez gero, Mallabiko Udaleko Ongizate Sailera jo leiteke.

Ikastaro honek landa eremuan bizi diren eta langabezian dagoen emakumeentzako dira

BERRIZ

Parkearen zati bat hartuko leuken patioa eskolarentzat

Eskola orduetatik kanpora herrira zabalik egongo litzateke 7.000 metro karratuko patioa

Eskolatik udaletxera dagoen lur sailean patio bat eraiki eta eskola barruko patioa konpontzeko asmoa dauka Berrizko Udalak. Patio barria eskolako sarreran hasiko da, eta proiektuan zehaztu dabenez, alboko parkearen 7.000 metro karratu hartuko leukez. Estalgune bat izango dau, eta gaztetxoentzako txintxaunak jartzea da asmoa. Eskola orduetatik kanpora herri guztira zabalduko litzateke patioa.

Eguaztenean osoko bilkuran aho batez onartu eben proiektua eta, guztira, 522.049 euroko aurrekontua edukiko leuke. Proiektua bi fasetan egingo litzateke: Lehenengo fasean, patio barria atondu gura dau Udalak, eta bertan 450 metro karratuko espazio estali bat jarri. Horretarako, Udalak Espainiako Gobernuak emoten

dauen tokiko inbertsinoetarako diru-laguntza eskatuko dau hilaren amaieran. Bigarren fasean, lehenengo faseko hobekuntzak egin eta eskola barruan “txapela” izenez ezagutzen daben patioa konpondu gura dau Udalak.

Tokiko inbertsinotarako diru-laguntza eskatuko dau Udalak, eta obrak udabarrian hastea itxaroten dabe

Diru-laguntzaren eskaera egin eta erantzuna laster jasoko dabela itxaroten dau Berrizko Udalak. Lanok udabarrian hasiko ditueela aurreikusi dabe, eta datozen Gabonetarako obra amaituta egotea da Udalaren asmoa. ■ A.U.

OTXANDIO

Urte osoan egongo da tabernetan terrazak ipintzeko baimena

Herritar baten eskaria aintzat hartuz, tabernariak gura daben aldiro ipini ahal izango ditue terrazak

Herritar baten eskaera aintzat hartuz, taberne urte osoan zehar ipini ahaliko ditue terrazak kalean. Orainsu arte, Aste Santutik urriaren 30a arte zegoen mugatuta kalean mahaiak eta aulkiak ipintzeko baimena.

Horretara, hemendik aurre, eraguraldia izango da terrazak ipini ala ez erabakitzeko eragozpen bakarra: “Terrazek ez dabe kalterik egiten, eta denbora ona bada go ez dogu arrazoirik ikusten terrazarik ipintzen ez izteko”, azaldu dau Aritz Otxandiano alkateak. Horrela, herrian “giroa sortzen” eta kalean jentea ibiltzen belaguntzen dabela azpimarratu dau.

Herrian terrazak ipintzen ditueen bost-sei taberna dagoz; gehienak plaza inguruko tabernak dira. Jakinarazo dabenez, baimena lortzeko ordainketetan ez

Irtenbide baten beharra
Agerraldian gogorazi dabenez, ordura arte Zelaietako anbulatorioan jasotzen eben osasun arreta jasotzeko Matienako zentrora bideratzen zituen agindua bertan behera itzi eta urte hasieran Osakidetzagaz batzartu eta irtenbidea bilatzeko konpromisoa hartu eban Jose Luis Navarro Talde Independententeko alkateak.

Oraindik orain arazoak soluzinorako biderik barik jarraitzen dauela nabarmendu dabe oposizio alderdiak eta Muntsarazko auzo elkartearen ordezkariak: oinarritzko zerbitzu publikoan murrizketa eta atzerapausorik onartzeko ez dagozela auzotarrak prest azpimarratu dau Muntsaratz TSTZ elkarteko ordezkariak. ■ I.E.

“Arduragabekeriak eta interes elektoralagaitik dihardu EAJk”

Atzo eguerdian, bi egun lehenago EAJk egindako agerraldiari “arduragabekeria” erizten deusala eta “etekin politikoa ateratzeko asmo argiagaz” diharduela jeltzaleek adierazi eban Talde Independententeko Navarro alkateak. Gabonetako jai egunen ondoren, Osakidetzak azaroan iragarritako mediku aldaketak bertan behera jarraitzen dauela azpimarratu dau Navarro. Osakidetzak Udalar proposamen zehatza helarazten deusana eta batzar baterako deialdia egiten deusana bitartean, egoerak orain arte

moduan jarraituko dau bere berbatan: “Datarik zehaztu ez bada, Osakidetzak aldaketak burutzeko larregiko presarikez daukalako izango da”.
Zentro bakarra
Zelaietako zentroan sortu den arazo zehatzari orain emon leikion irtenbidea behin-behinekua izango dela ezinbestean, baina Gobernuak “etorkizunera begira herrian osasun zentro bakar, duin eta zabal bat eraikitzeko helburuz Osasun sailburuagaz batzartzeko hitzordua” egingo dauela aurreratu dau alkateak.

A.Otxandiano: “Terrazek ez dabe kalterik egiten, eta eguraldi ona bada go ez dogu ez ipintzeko arazorik ikusten”

DURANGO



Atzo sinatu eben akordioa Itziar Garamendi diputatuak eta Aitziber Irigoras alkateak. Iban Gorriti

San Rokerako bidegurutzean biribilgunea egiteko akordioa

Aldundiak eta Udalak biribilgunea egiteko akordioa sinatu eben atzo

Aitziber Irigoras alkateak eta Itziar Garamendi Aldundi-ko Herri Lan Saileko diputatuak San Rokerako bidegurutzean, BI-623an, biribilgunea egiteko lankidetzaren hitzarmena sinatu eben atzo.

Itziar Garamendi Herri Lan Saileko diputatuak eta Aitziber Irigoras alkateak sinatu eben lankidetzaren hitzarmena

Akordioaren arabera, Aldundiak BI-623 errepideari jagokozen lanak finantzatzeko dituzte: 1,8 milioi euro. Udala, barriz, biribilguneagaz batera egingo dituen espaloien, bidegorriaren eta hiri-gintza-garapenerako sarbidea

emoteko lanen finantzaketaz arduratuko da: milioi bat euro inguru. Bestalde, San Rokerako bidegurutzeko igoerako alde banatara dagoen lur-zatietan egin beharreko urbanizazio lanak gauzatuko dituzten promotoreek bidea azpitik gurutzatzeko tunela finantzatzeko dabe (1,2 milioi euro). Proiektua egiteko 16 hile beharko ditue. Lanak noiz hasiko diren galdetuta, "lehenengo aurrekontuak onartu behar dira", esan eban Irigoras: "Guk diru-atala aurreikusi dogu aurrekontuetan".

Biribilguneagaz "Bilbotik San Rokerako sartu gura dabenak edo San Rokeratik Mañarirantz hartu gura dabenak askoz arrisku gitiagagaz ibiliko dira", azaldu eban Irigoras alkateak.

Aldundiak 1,8 milioiko inbertsinoa egingo dau, eta Udalak miloi bat pasatxokoa

Itziar Garamendik sinatutako akordioaren "garrantzia" azpimarratu eban: "Euskadin istripu kopuruak behera egin dau, eta horretan zerikusi handia daukie errepideetan segurtasuna hobetzeko egiten diren inbertsioek".

Tabirarako sarreran biribilgunea egiteari buruz, Irigorasek aitatu dauenez "Aldundiari bere sasoian planteatu jakozen errepideak behar dituen hobekuntzak, modu integralean". Bestalde, Jaur-laritzak Izurtza-Durango tramuko abiadura kontrola egiten dihardu, eta ondoren kontrol horren emaitzak aztertuko ditue: "Emaitza horreen arabera hartu beharko da irtenbiderik egokiena". ■ J.D.

Intxaurreko zazpi juntakideek gaur deklaratu dabe

Gaur, 10:00etan, Intxaurre kultur elkarteak zazpi kidek Madrilgo Auzitegi Nazionalan deklaratu dabe, Baltasar Garzon instrukzio epailearen aurrean. 2007an Guardia Zibilak Intxaurreko egoitzan egindako miaketaren harira deitutu dabe, "talde terroristako kide" izatealeporatuta, igazko azaroan emon eben prentsaurrekoan azaldu ebenez.

Intxaurreko kideek jakinarazi dabenez, aurretik beste hiru bider deitu izan ditue deklaratzera, baina arrazoi bategaitik edo besteagaitik gaur arte atzeratu dabe. Urritik azarora atzeratu eben lehenengo; ondoren, beste birritan aldatu eben data: azarotik abendura eta abendutik urtarilera.

Deklaratzeko deia hiru bider atzeratu ondoren, gaur 10:00etan deklaratu dabe zazpi juntakideek

Zazpi juntakideek deklaratu ondoren, ez dago eperik zehaztuta epaia jakinarazteko. Garzonek deliberatuko dau froga nahikorik badagoen auzia epailetara eramateko ala ez.

Joan zen barikuan, Intxaurren urteurrenko ospakizunekin batera, gaur Madrilgo Auzitegi Nazionalan deklaratu dabenez zazpi juntakideak begoratu zituzten, euren elkartasuna adierazteko asmoz. ■ J.D.

Kutxazaina bide publikoan daukien bankuei zerga kobratzen hasi dira

PSE-EEK gai horri jagokoz ordenantzari aurkeztutako alegazioa onartu dabe

Durango PSE-EE alderdiak alegazioa aurkeztu deuto oraintsu domeinu publikoaren okupazioa jasotzen dauen ordenantzari. Alegazio horregaz ordenantza gehiago zehaztu dabe, eta bide publikoan kutxazainak, kaxa-gotorak edo antzerakoak dituzten bankuei zergak ordainarazten hasi dira. PSE-EEK oraintsu arte tasa hori kobratu ez izana salatuz dau: "Ordenantzak orain dela urte askotatik jasotzen dau hori".

PSE-EEren arabera, tasak ez ordaintzeko Gobernu Taldeak emon eutsen arrazoiak "ordenantzako alor horretako testua ez zegoela argi" izan da. Horregaitik aurkeztu dabe testua argitzea hel-

buru dauen ordenantza, sozialisten ustez "lan hori egitea Gobernu Taldearen egin beharra" den arren.

Izotz pista sintetikoa

Bestalde, PSE-EEK mozino bat aurkeztu dau datorren urtean izotz pista sintetikoaren aldeko apustua egiteko eskatuz. Dinoenez, "izotz artifizialeko pista, sintetiko batek baino askoz energia gehiago kontsumitzen dau eta hamar bider garestiagoa da".

EAJk mozinoaren kontra bozkatuko dauela aurreratu dau, PSE-EErena "proposamen elektoralista" dela argudiatuz: "Izotz pista- ren alde jarraituko dogu". ■ J.D.



IZURTZA

Arau Subsidiarioak aldatzeko proposamena

Udaleko arkitektoa eta abokatua hasita dagoz Arau Subsidiarioak aldatzeko txostena osatzen

Udal Gobernuak etxebizitza sozialak eraikitzeak Gazte Lokalaren pareko lursaila aukeratzeko arrazoiak azaldu zituen urteko azken plenoan Udal arkitektoak. Udalbatzar berean, jeltzaleek etxebizitza sozialak eraikitzeak defendatzen dabene kokapen alternatiboa behin betirako alboratzeko dituen arrazoiak be mahai gainerratu zituen Udal arkitektoak.

Gazte lokalaren parean dagoen 1.600 metro koadro lur urbanizatzea da asmoa

Etxebizitza sozialak eraikitzeak orain nekazal erabilerarako lur moduan sailkatuta dagoen lursailaren izendapena aldatzeko prozesua abiatu dabe Udalean. Arau Subsidiarioak puntualki aldatzeko prozesua abiatzeko, txostena idazten dihardueela Udaleko abokatuak eta arkitektoak.

Iazko iraileko udalbatzar batean lotu eban Udalak 15 etxebizitza sozial eraikitzeak baliatuko dauen 1.600 metro koadroko lursailaren erosketaren hitzarmena. Lursail horretan etxebizitza sozialak eraikitzeak tramiteak abiatu ditue, beraz. ■ I.E

URTINTXA
HEZIKETA JOSTAILUAK-ESKULANAK
Aukera ezazu hemen zure erregalua
Andra Mari kalea, 9 DURANGO Tel.: 94 681 50 17

BILBAO ASEGURUAK
Jabier Rueda
GRUPO CATALANA OCCIDENTE

Betikoak
flexografia
ofizinarako zigiluak
fotolitoak
Bixente kabanaga, 9 - 48215 IURRETA
Tel.: 94 620 22 41

OSASUN GIDA

PEDAGOGIA



UMEAREN GARAPENERAKO ZENTROA

Laguntza goiztiarra, Psikomotrizitatea,
Fisioterapia, Logopedia

Juan de Olazarán, 1 behea
48200 DURANGO

tf: 94 466 83 70 - 615 782 090

FISIOTERAPIA




FISIOTERAPIA ETA ERREHABILITAZIOA

Erditze aurreko eta ostekoa, txisari
ezin eustea, traumatologia, kirola, trafiko istripua,
drainatze linfatikoa(masektomia ondoren),...

Iturriza, 44 -behe ezk.
48240 BERRIZ

tf. 94 622 55 93

PODOLOGIA



JON GERRIKAETXEBARRIA PENÁ

OINETAKO KONTSULTAK:
oinen gaitzak, ortopedia eta zirugia

Ermodo, 2- 1. eskuma
48200 DURANGO

tf: 94 620 11 00

ODONTOLOGIA



B. UNAMUNZAGA E. ETXEBARRIA

ODONTOLOGIA OROKORRA
ETA ESPEZIALITATEAK

Murueta Torre, 2- C behea
48200 DURANGO

tf: 94 681 99 51



HIRU FISIOTERAPIA

astelehenetik - ostiralera 08:00 - 21:00
larunbatak 09:00 - 13:00

Antso Estegiz, 4
48200 DURANGO

tf. 94 466 94 00



GOIATZ MURUA LETURIAGA

PODOLOGOA
Kiropodia, Onikopatia, Alterazio
Dermatologikoak, Ibilkerako alterazioak

Monago Torre, 4- behea
48200 DURANGO

tf: 94 620 36 30



J.L. URRETA ZABALO

MEDIKU ESTOMATOLOGOA
IMQ, PADI (umeen hortz programa)
ortodontzia

Zumalakarregi 18- 1. ezk.
48200 DURANGO

tf: 94 681 22 00

LOGOPEDIA



- Psikologia
- Logopedia
- Psikoterapia
- Fisioterapia
- Bach loreak

ume eta helduentzako

Txibitena, 9A - behea
48200 DURANGO

tf. 94 681 21 00

mug.: 669 612 362

ahozabal_zentrua@yahoo.es

ESTETIKA



ESTETIKA TRATAMENDUAK

Obesitate-zelulitis;
Laser: depilazioa (prezio bereziak), barizeak...
Adinen kontrako tratamenduak: orbanak, botoxa...

Txatxiena 6
48200 DURANGO

tf. 94 681 03 87

KIROMASAJEA



KIROMASAJEA DIGITOPUNTURA

Komentu kalea 15
48200 DURANGO

tf. 94 620 00 52

PSIKOLOGIA



JON ARRUABARRENA

PSIKOLOGO KLINIKOA
PORTAERA TERAPIAN MASTERDUNA

- Antsietatea, estresa, fobiak
- Depresioa
- Eskola arazoak

Umeak - Nagusiak - Bikoteak

Francisco Ibarra, 6
jon@psikologo.biz

Durango
www.psikologo.biz

tf: 94 603 32 46 - 629 245 728

ELORRIO

Guardia Zibila
elorriar baten
bila dabil

Herriko etxebizitza bitara eta Lagun Toki sozietatera sartu zen astelehen goizean Guardia Zibila, Luis Zengotitabengoagazte elorriarren bila. Goizeko 09:00etan hasi eta eguerdira arte egin zituen miaketak Guardia Zibilak, eta Ugarte kalean eta San Fausto kalean gaztearen familiak dituen etxebizitza banatan sartu ziren poliziak. Lagun Toki elkartera be joan ziren. Goiz osoko miaketen ondoren ez eben elorriarra aurkitu.

San Fauston eta Ugarte
kalean egin zitueen miaketak;
goiz osoa emon eben herrian

Iturri polizialen arabera, joan zen zapatuan Portugalen egin zitueen atxiloketen harira dabilz Zengotitabengoak bilatzen. Guardia Zibilak zabaldu dauenez, Portugalen atxilotu eben ustezko ETA-kide Garikoitz Garcia Arrietak gidatzen eban furgoneta Zengotitabengoak alkilatu ebala uste dabe, eta horregaitik dabilz bere bila. ■ A.U.

Guardia Zibilak Zamoran
topatutako furgonetagaz
lotzen dabe gazte elorriarraKainabera elkartearen sei proiektuk
Udalaren diru-laguntza jasoko dabe

Saharako errefuxiatuei laguntzeko eta Uruguain irratsaio bat bultzatzeko be emon dau dirua

La 30.000 euro emon deusaz Elorriko Udalak herriko Kainabera gobernuz kanpoko erakundeari, esku artean daukazen sei proiektuetara bideratzeko. Gaur egun Kolonbian eta Nikaraguan martxan dagozen egitasmo batzuetara joango da dirua, eta Kainaberaren bitartez ume errusiarrak hartzen ditueen gurasoentzako be emon dau laguntza Udalak. Horrez gainera, Saharako errefuxiatuentzako eta Uruguain irratsaio bat bultzatzeko be emon dau dirua Udalak.

Kolonbiako eta Nikaraguako
proiektuetan lagunduko dau
Udalak, eta baita ume
errusiarren etorreran be

Kolonbian Bogotako hegoaldean dagozen auzoetako proiektuei laguntzeko izango da diru gehiena. Jantoki komunitarioen mantenurako 6.109 euro emon ditu Udalak. Umeen zaintzarako eta gosarietarako egitasmoarentzat 7.706 euro emon ditue. Minbizia daukien umeentzat eta euren

zaintzaileentzat garatu daben proiektuari 4.537 euro, eta premi-na bereziak daukiezen umeentzako programari 4.423 euro. Bestalde, Nikaraguan osasun baldintzak hobetzeko egiten dabilzen etxeak egiteko 3.846 euro emon ditu Udalak.

Sahara eta Uruguai

Saharako errefuxiatuen kanpamentuetan goseteari aurre egiteko be emon dau laguntza Udalak. Horretarako 1.500 euro emon ditu. Gogoratu behar da Elorrio Saharako Mijek herriagaz senidetu zela igaz, eta kanpamentuei laguntzeko konpromisoa hartu ebala Udalak. Bestalde, Zortzigarren Herrialdea (8H) elkarteak Uruguain garatzen dabilen *Orain Euskal Herria* irratsaioari laguntzeko be emon dau 1.500 euroko laguntza. ■ A.U.

Saharako Mijek herriagaz
senidetu zen igaz Elorrio;
errefuxiatu sahararrentzat
1.500 euro emon ditu Udalak

Nikaraguako Mozonte herrian etxeak egiten dabilz.



Urtarrilak 22
RUPER ORDORIKA
ostirala 22:00etan. Sarrera: 10-12 €



PLATERUENA
Durangoako Kafe Antzokia



Urtarrilak 30
GARI
larunbata, 22:00etan. Sarrera: 8 €

DIURRETA

Bidebarrietako udal zerbitzuak ugarituko ditue astelehenean

Udaltzaingoa eta Diru-Bilketagaz batera, Erregistro Orokorra eta Bake Epaitegia hantxe egokitu ditue

Astelehenetik aurrera, Bidebarrieta kaleko 5. zenbakian egongo dira Bake Epaitegia eta Erregistro Orokorra. Irailaren erdian Udaltzaingoa eta Diru-bilketa Sailagaz ireki eben eraikin barria, eta orain, aipatutako sail biak hantxe egokituta, udaletxea “arintzeko” eta “herritargoagaz hartu-emona daukien hainbat zerbitzu gerturatzeko” asmoa osatu dabe, Iñaki Totorikaguenak alkateak adierazo dauenez.

Bake Epaitegia eta Erregistro Orokorra Bidebarrietan egokitu-tako lokalean zabaltzeak langile bi tokiz aldatzea ekarriko dau, sail bakotzeko bana. Bake Epaitegiak, besteak beste, epaitegitik heltzen diren notifikazioak gestionatzen

ditu. Halan be, Erregistro Orokorrena da herritarrek gehien nabaritutako daben aldaketa. Izan be, hantxe kudeatzen dira ziurtagiriak, dokumentuen sarrerak eta irteerak, erroldak... Eguneroko jardue-

Orain, dokumentuen sarrera-irteerei eta erroldari buruzko informazioa Bidebarrietan jasoko dabe herritarrek

ran herritarrekin hartu-emon zuzena izaten dau Erregistro Orokorrak.

Irailaren erditik hona joan diren ia lau hiletan eraikin barriak eta han burututako gestioek



Udaltzaingoa eta Diru-bilketa Sailagaz zabaldu eben lokal barria igazko irail erdialdean. J.D.

“harrera ona” izan dabela dino Totorikaguenak: “Lehen baino jentte gehiago joaten dela igartzen da, hurrago, eskurago dagoelako. Horixe zen lortu gura genduenak, hain zuzen be”.

Kokapen barriak herritarren aldetik “harrera ona” izan dauela dino Totorikaguenak

Bake Erregistroko eta Erregistro orokorreko langile biekin batera, bost udaltzainek eta zerga-bilketarako lagun batek be atondutako eraikin barrian lan egiten dabe. ■ J.D.

ZALDIBAR

Herriko historia gordetzeko darabilen eginahalean, *Zaldibarko soinu-joleak* izenburua daroan 28. liburuxka kaleratu dau Balendin Lasuen zaldibartarrak.

Soinuak mende eta erdian herriko jaiak girotzeko izan dauen garrantzia azpimarratuz zabaldu dau liburua Lasuenek, eta trikiti-xak herrian izandako historiari errepasoa emon eta gero, soinu-jole zaldibartaren biografia eta argazkiak eskaintzen ditu.

Soinujole zaldibartarren biografia eta argazkiak ez eze, kanta biren partitura eta letrak be bildu ditu liburuxkan

Eitzagabarrena baserrian 1895ean jaiotako Rafael Bildosola eta ondoren jaiotako beste hamaika soinujoleren biografiak jasotzen ditu liburuxkak, eta *Zaldibarko Andra Mari* eta *Agurra* kanten partitura eta letrak be jasotzen ditu azken lanean Lasuenek.

Herriko soinu-joleei buruzko liburuxka kaleratu dau Lasuenek

Bildumaren 28. liburuxka argitaratu dau Balendin Lasuenek: soinu-joleena



Martzel Urizar Zurikarai soinu-jolea, liburuko irudietako batean.

MAÑARIA

Herri Taber tabernako lapurreta

Herri Taber tabernan lapurrak sartu ziren eguen goizaldean. Sarrerako ateko kristala apurtu eben, eta gero handik Udaletxeko eraikineko beheko solairuko lokalera sartu ziren. Txanpon-makina apurtu eta bertan zegoen diru guztia hartuta alde egin eben. Alarmak berehala jo eban, zer edo zer gertatzen zela ohartaraziz. Konturatzerako lapurrek alde egin eben.

Ez da hau lapurrak taberna horretara datozen lehenengo aldia. Aste honetan gertatutako lapurretagaz Herri Tabernen hirugarrenez ostu dabe. Igaz be modu berean ostu eben txanpon-makinako dirua. Kasu haretan be, ateko kristala apurtuta sartu ziren. Orain urte bi, barriz, egun berean tabernan eta Udaletxean egin eben lapurretan.

ZARATE ELEXPE
E R A G I L E A K

Bixente Kapanaga 19, behea
48215 IURRETA (Bizkaia)
Tel.: 946 816 673
Faxa: 946 817 636
construcciones@zarateyelexpe.biz

GALLASTEgi
gallastegiharategiak@euskalnet.net

1955 ean sortua

HARATEGI
ARTISAU ERARA
ESPEZIALIZATUA

Zalduasolo, 8
946 827 038
48250 ZALDIBAR

Antso Estegiz, 1
946 812 247
48200 DURANGO

GARA

Errematan elkartuko dira herritarrak San Anton egunez

Meza eta enkantea egingo ditue, urtero lege, domeka honetan



San Joan Ebanjelariaren elizpean izango da Erremata; herritar ugari egon ohi da enkantean. I.G.

O hiturak mantentzen dituen herria da Garai, eta urteroko zitari eutsiz, aurten be Erremata izango dabe domekan. San Anton eguneko ospakizun honetan, herritarrek eroandako produktuak enkantean ipiniko ditue.

Meza nagusia izango dabe lehenengo, San Joan Ebanjelariaren elizan eguerdiko 12:00etan. Abadeak inguruko zelai eta lurak bedeinkatu ohi ditu, eta gero has-

Meza nagusia izango dabe lehenengo, San Joan Ebanjelariaren elizan, eguerdiko 12:00etan

Errematan ateratzen den dirua laguntasunera bideratu ohi dabe

ten da erremata. Baserriko deneriko produktuak eskaintzen ditue herritarrek: bildotsa, arrautzak, txorizoa... Errematan ateratzen den dirua, laguntasunera bideratu ohi dabe: Palenqueko Heziketa zentro batera, adibidez. Behin enkantea amaituta, bazkarian jarraituko dau jaiak.

Bestalde, Urkiolan be egun seinalatua da San Anton, eta bertan ogia eta barazkiak bedeinkatuko ditue. ■ M.O.

ATXONDO

Abenduaren amaieran ipini eben igazko urtariletik Bilborako norantzan autobusaren geltokiaren aterpea. Orain zenbait aste jakinarazi eban Udalak, autobusaren zain dagozenak neguko eguralditik babesteko markesinarik ez ebla ipiniko erantzun eutsala Bizkaiko Aldundiak: markesina ipintzeko behin eta berriz galdetu eutsala zortzi hilabetetan zehar Aldundiari gogor salatu eban Udalak.

Hainbat bider eskatu ei eutsan Udalak Aldundiari geltokian aterpea ipini zeian

Bizkaiko Aldundiko Garraio Sailagaz izandako tira-biraren ondoren, Udalak ipini dau azkean alboko irudiko aterpea: abenduaren amaieratik eta Udalak 5.000 euro inguru ordainduta autobusa- ren zain egoteko markesina daukie garraio publikoaren erabiltzaileek, Udal Gobernuak azpimarratzen dauenez baina, "guzti-guztia atxondarrek ordainduta". ■ I.E.

Udalak 5.000 euro ordaindu ditu markesina ipintzeko

Aldundiak Udalaren eskaria alboratu eta gero, Udalak ordaindu dau autobus geltokiko aterpea



Azken konponketak egin ditue asteen Udaleko langileek.

DURANGO

Txikiparka asteburuan jarriko dabe martxan Landako Gunean

Durango umek Txikiparkean olgetako aukera izango dabe zapatu honetan hasi eta ekainera arteko asteburuetan, Landako Gunean, arratsaldeko 17:00etatik 20:00etara (Sarrera doakoa izango da). Jolasak erabiltzeko adin egokia 2 urtetik 5 urtera artekoa da. Udaleko ordezkariak azaldu dabenez, "helburua elkarrekin egoteko, dibertitzeko eta gustura egoteko toki bat eskaintzea da. Gainerako parke publikoen "alternatiba" da. Antolatzen daben hirugarren aldia dela gogoratu dau Udalak: "Txikiparkak izan dauen harrera eta eskaria kontuan hartuta".

JAEDek emon dau kotxea

Mariano Garcíak eta Josefina Méndezek JAEDen zozketako sari nagusia jaso dabe: Citroen C3 kotxea. Garcíak adierazi daue- nez, "zozketaren egunean bertan" erosi eban emazteak arratsaldean kotxe bate- gaz sarituko eben zenbakia (55.246): "Emaztea kalera irten zen une batean eta, bide batez, JAE- Deko errifaren bat erosteko esan neutsan eta, hara non- dik, zozketak haxe saritu eban arratsaldean", adierazi dau irabazleak.



IURRETA

Haitirako laguntza, lurretatik

Eusko Jaurlaritzak bidaltzen dauen lehen laguntza taldea Iurretako Ertzaintzaren estazinotik irten da Haitirantz, lur zein itsaso bidezko erreskateetan laguntzeko. Gruak eta txalupak eroan ditue horretarako. Armadaren hegazkinean abiatu dira ertzainak eta tresneria guztia. Hurrengo egunetan ekarpena handituko dabela adierazi dabe Jaurlaritzako ordezkariak.



DURANGALDEA

AHTa eraikitzeke obren kostua

Durango AHT Gelditu! Elkarlanak salatu dauenez, "trenaren eraikuntza EAEko biztanle bakotxarentzat 4.859 euroko gastua izango da". Gaineratu dabenez, "Elorriotik Zornotzaraino 263.648.857,2 euro xahutu ditue, adjudikaziotan, obrak hasi ahal izateko". Elkarlanak dinonez, "diru hori gastatu daben bitartean, Durangaldeko langabezia tasa bikoiztu egin da azken urtean. 2008ko urrian langabezia tasa %6,76koa zen eta 2009ko urrian %12,76koa". Azken 11 hileetan eskualdean 11 ERE ezarri ditueela be badinoe. Proiektu honek Durangaldeko ekonomiari ez deusala "ondorio onik" ekarri salatu dabe.

BERBAZ >

“Gazteak eskolatik kanpora euskaraz berba egiteko motibatzea da helburua”

‘Euskaratek’ eta ‘Euskal Coaching’ ikastaroak emongo ditu Berrizen Koikili Athleticceko jokalaria, Iturraspegaz

Kirolean euskararen erabile-
ra bultzatzen dihardu Koiki-
li Lertxundi Athleticceko joki-
lariak, Itzarri Consultingen bitartez.
Gazte berriztarrek kirolean emoten
daben denporan euskara erabil-
tzea eta kirol taldeei euskaraz jar-
duteko baliabideak emotea dira
helburu nagusiak. Izan be, euska-
raren erabileraren inguruan egin-
dako azterketak dinonez, oroko-
rrean berriztarren %27k euskaraz
berba egiten daua; kirol arloan,
barriz, %5ek.

Zelan sortu da ikastaro honeek martxan jartzeko asmoa?

Itzarrin 2008 hasieran enpresa eus-
kalduntzeko Euskara Saila sortu gen-
duen. Pentsatu genduen bezeroen-
dako euskara sustatzeko zerbitzua
eskaintzea. Euskara planean sartu
ginen eta gero euskararen sustapena
gure bezeroei eskaintzen hasi ginen.
Konturatu ginen ezagutzak batez be
kirolean eta hezkuntzan geunkazela.
Hainbat herritako udalekin batera
Euskaratek eta *Euskal Coaching*
ikastaroak eskaintzen hasi ginen.
Kasu honetan, Berrizko Udalagaz
elkarlanean gabilz. Ander Iturraspek
eta neuk parte hartuko dogu.

Beste herri batzuetan zer harrera izan dau?

Hainbat saio egin dogu eskoletan.
Bilboko Udalagaz 14 ikastetxetan
tailerrak emoteko hitzarmena sinatu
genduen. Audioko Udalagaz beste
sei saio emon genduzen. *Euskal*
Coachinga Getxoko futbol taldeagaz,
Leioan, txirrindularitzagaz lotura
Zaldibarren, Zierbenan arraunagaz
eta Plentzian beste futbol elkarte
batzuekin eskaini dogu.

Zelako esperientzia izan da?

Oso esperientzia polita da. Barri-
tzailea eta gogo betegarria. Izan be,
eskoletan umeak normalean egiten
daben ariketa bat egiteko motibatu-
ta ikusten dozuz. Pertsonai ezagun
baten inguruan deskribapen bat
egin behar dabe, eta nagusiek jen-
daurrean aurkezten dabe teknologia
barriak erabiliz. Deskribapena, uler-
mena, idazkera eta irakurmene lan-
tzea da helburua. Irrikitan egoten
dira, eta sortzen den giroa oso polita
izaten da.

Eta entrenamenduetan?

Gauza ederra da ikustea euskararen
ezagutza badagoela; baina ohitura-
rik ez daukagu. Beraz, hortxe eragin
behar dogu. Ezagutzarik ez balego
gatxagoa izango litzateke talde
horrek euskalduntzea. Pozik gagoz



“Berrizko futbol taldeagaz be entrenatuko dogu”

umeeek saioak oso ondo jasotzen ditueelako. Ez doguz euskara erabil-
tzera derrigortzen. Euskara erabil-
tzen dabe eskolatik kanpora ondo
pasatzeko den kirol baten. Entrena-
tzaileen kasuan, eurek gaitasuna
daukie, baina ohiturarik ez. Ohitura
hori hartu daien laguntzen gabilz.

Gazteen eta zaleen artean izarrak zarie.

Umeek ikustea erreferenteak izan
leitekezen pertsonak euskaraz nor-
maltasunez berba egiten dabela,
garrantzitsua da. Hedapena eta lor-

“Athleticen euskaraz egiten dogu euskaldunon artean ”

pena handia izan leiteke. Pertsona
horreek horrelako proiektuetan ari-
tzea inportantea da, euskara eskola-
tik atera eta gizarteratzeko aukera
dagoelako.

Jokatu dozun taldeetan euskaraz berba egin izan dozu?

Lurralde denetan ibili naz, Araban,
Bizkaia, Gipuzkoan eta Nafarroan.
Iparraldea baino ez jat falta. Gipuz-
koan eta gainerako lekuetan alde
handia dago. Bizkaian gitxiago
entzuten da, eta Araban eta Nafa-
rroan oraindino gitxiago.

Koikili Lertxundi •

- Athleticceko jokalaria
- Itzarri Consulting enpresako koordinatzailea

Eta Athleticen?

Egondako talde guztietatik euskara
gehien berba egiten dena Athletic
dela esango neuke. Entrenatzailea
erdalduna izan arren, euskara daki-
gunon artean euskaraz egiteko ohi-
tura hartu dogu.

Borroka librean aritzen zinen. Zalea izaten jarraitzen dozu?

Bi kirolean ezin neike jardun.
Oraindino afizinoa badaukat, eta
entrenamenduren bat ikustera joa-
ten naz, anaia gazteenak borrokan
egiten jarraitzen dauelako eta Mai-
der Unda be laguna dodalako.

Asteburuko Real Madrilen kontrako partidua zelan bizi dozue?

Irrikaz. Real Madrilen kontrako par-
tiduak ikusgarriak izaten dira. Aurre-
ko momentuetan urduritasuna iza-
ten dogu, eta heltzeko gogoz izaten
gara. Egoera onean gagoz, aspaldian
ez bezala, sailkapeneko preminarik ez
daukagulako. Momentu egokia izan
leiteke Madrili irabazi eta hiru pun-
tuak Bilbon gelditzeke.

*UEFAn aurten poztasunik emongo deus-
kuzue?*

Baietz itxaroten dogu, ze Ligan
gatxa izango da. UEFAn aukera poli-
ta daukagu eta saiatuko gara ahalik
eta urrunen heltzen. Ea Hamburgo-
ko sailkatzen garen. Albiste ona
izango litzake. ■ Jone Guenetxea

“Euskaraz entrenatzeko ezagutza badaukie, ohiturarik ez”

EKONOMIA[>]

> DURANGALDEA

Durangaldean % 36,8 hazi da langabezia

Industria sektorean egin dau gora gehien lanik ez daukienen kopuruak. Igaztik % 76,1 hazi da

Igaz 2008an baino 1.486 langabetu gehiago kontatu zituen INE-Mek eskualdean. Igaztik %36,8 hazi da, beraz, lanik barik dagozen kopurua. Gorakada horregaz, Durangaldeko biztanleria aktiboaren % 12,9 zegoen langabezian 2009ko abenduan. Hego Euskal Herrian, barriz, %12,5ekoa izan da tasa hori.

Langabezia sektore guztietan igo da, baina industrian izan dau igoerarik handiena; % 76,1 hazi da. Arlo horretan, igaz 1.318 langabetu bazegoen, aurten 2.322 zenbatu ditu INEMek. Langabetu barri

gehienak gizonezkoak dira. Izan be, orain artean langabezian egon diren emakumeak gizonak baino gehiago izan dira, eta hori aldatu egin da; 2009 amaierako datuen arabera, langabetuen % 52,29 gizon-zkoak dira, eta % 47,71 emakumezkoak.

Adin guztietan

Adin tarteei jagokenez, edade denetakoen artean igo da langabeen kopurua. INEMeko datuen arabera, igoera hori handiagoa izan da 35 urtetik 45 urte bitarteko pertsonen artean. ■ A.U.

DURANGALDEKO LANGABETUEN DATUAK **

Sektoreak	2008		2009	
	♂	♀	♂	♀
Nekazaritza/Arrantza	24	5	28	9
Industria	737	581	1.440	882
Eraikuntza	242	22	366	43
Zerbitzuak	901	1.416	1.124	1.608
Aurretik langabetuak	29	80	30	93
GUZTIRA	1.933	2.104	2.888	2.635

* INEM-eko datuak
* Zornotza eta Ermua datuetan barne

> BERRIZ

Euskararen erabilera sustatzeko materiala dendarien esku

Udalak merkealdietan euskara erabiltzeko CD bat banatu deutse merkatariei



Hainbat dendatan Udalak banatutako kartelak ikusi leitezke.

Euskara jakin arren, merkatarien eta bezeroen arteko harremanak sarri gazteleraz izaten dira. Hori dela-eta, Berrizko dendetan merkealdi garaian euskararen erabilera sustatzeko materiala banatu barri dau Berrizko Udalak.

Materiala CD batean banatu dau Udalak, eta bertan hainbat atal dago. Ahozko hartu-emonak euskaraz izan daitezen laguntzeko, berba eta esamoldeen bilatzaile bat dago. Idatzizko kontuetarako be badago materiala: erakusleihoetan jarri ahal diren kartelen ereduak dagoz, eta baita fakturak eta albaranak lako agirien ereduak be. Horrez gainera, euskararen inguruko bestelako argibideak edo zalantzak izanez gero denda-

riek nora jo leikien adierazten dauen atal bat be badago Udalak banatu dauen CDan.

Orain dela astebete banatu eban CDa Udalak, eta merkatariei gehienek aitortu dabenez, merkealdietako lanak direla-eta, oraindino ez dabe astirik izan bertako materiala ikusteko. Horrelako ekimenak positiboak direla uste dabe Berrizko merkatariek, laguntza hori ondo etortzen jakela aitatu dabe. Bakotxak hizkuntzagaz daukazen ohiturek dendetako hartu-emonetan eragina daukiela be nabarmendu dabe. Ana mertzeriako arduradunak azaldu daue- nez, "lehen berba euskaraz egiteko ohitura badogu, hartu-emonak be euskaraz izango dira". ■ A.U.

Berba eta esamoldeen bilatzailea, kartelak eta albaranak eta fakturak lako agirien ereduak dagoz CDan

■ kolaborazinoa



Mikel Etxebarria
ELA sindikatua

Nor maite du kapitalismoak?

Badaukat aspaldiko lagun bat, berak dioen bezala ezkerrekoa dena, gorria etab. Pote batzuk hartzen, hasten gara hitzegtien abagune sozioekonomikoari buruz, eta diost: "Baina zer egin dezakegu? Ez dago ezer egiterik!". Eta segitzen dugu poteak hartzen, ze azken finean horretarako geratuta geunden. Hala ere gauza, batzuk datozkit burura: Kopenhagen atxilotutako milaka militanteen kemena, munduan zehar hainbat foro sozialetan biltzen diren kontrabotereko mugimendu ugarietako tailerretan eztabaidatzen diren ideiak, Frantziako farmazeutika batean jabea "bahituta" zutela beraien eskubideen alde enpresan bertan entzerratu ziren langileen erabakia, urtaril honetan Iruñean Corte Ingles aurrean (*Jaiegunetan jailolepean*) poli-ziaren kolpeak jaso zituztenen militantzia, Ductilor-Fytasako langileen borroka, tailer txiki askotan (Angio adibidez) soldatarik ezin kobratuta enpresaren txantaiari aurre egiten dieten langileen duintasuna.... Kapitalismoak edo sistema kapitalistak ez du maite gizakia, baizik berorren ezjakintasuna; justizia ideiak eta hauek egikartzeko kontzientzia eza eta horren ondorioz datorren pasibitatea.

Kantari batek esaten duen moduan, "zintzotasuna ez da bertute bat, betebeharrak bat baizik"

Esaerak dioen bezala, bik-tima (kontzientea edo inkontzientea) edo sistemari egotzi zeniezaioke errua, eta Michael Moorek bere azken pelikulan erradikalki dei egiten du sistema (kapitalismoa) jotzeko errudun. Ni ados nago nire poteoko laguna ez dela errudun esatean, baina nire ustez erresponsabilitatea eta elkartasuna exijitu behar zaizkio. Kantari batek esaten duenaren arabera, "zintzotasuna ez da bertute bat, betebeharrak bat baizik".

anboto, durangaldeko astekaria




Egin zaitez harpidedun

harpidedun egiteko, deitu 94 681 65 58 telefonora edo harpidedun@anboto.org-ra zure izen-abizen eta helbidea bidali

KULTURA>

ANTZERKIA> ESTREINALDIA



‘Uharte ezezaguna’ aurkitzeko bidaia

Jose Saramago idazle portugaldarrak 1998an kale-ratutako *O conto da ilha desconhecida* ipuinean oinarrituta sortu du Markeliñe antzerki talde zornotzarrak *Uharte ezezaguna* azken lana.

Familia osoari zuzenduta, amets egiteko gaitasunaren aldarria egiten duen antzezlanak joan zen barikuan eta zapatuan eman zuten Markeliñekoek euren herriko antzokian, Zornotza Aretoan.

Uharte ezezagun bat helmuga duen bidaia abiatzen duten hiru lagunentzako abentura eta erronkak erakutsi eta Saramagok bere ipuin laburrean landutako ideiak jaso zituzten Zornotza Aretoa bete zuten antzerkizaleek: amets egin, asmatu eta imajinatzeko ume zein helduok dugun ahalmena eta askatasunari buruzko gogoetak.

Elementu oso gutxi baliatuta sorturiko eszenografiagaz eta argiztapen leunagaz bidaiatzera gonbidatzen gaituen antzezlanak da keinu soiletan oinarritzen den *Uharte ezezaguna*: erregeari uharte ezezagunaren bila abiatzeko itsasontzia eskatzean “uharte guztiak mapetan daude” erantzuna jasotzen duen protagonistaren eta bidelagun bien abenturan barneratzeko Durangaldean izango ditugun hurrengo aukerak, besteak beste, urtarrilaren 31ko Elorrioko Arriola kulturgunekoa eta otsailaren 5ean Berrizko Kultur Etxekoa izango dira. ■ I.E.

12 Durangoko Museoko ikastaroak

Durangoko Arte eta Historia Museoan urte honen hasieran izango diren ikastaroak joan zen astelehenean aurkeztu zituzten Durangoko Udaletxean.



13

‘Haizea garizumakoa’ dator

Urtarrilaren 22an 22:00etan hasita izango dugu Ruper Ordorika Durangoko Plateruenean, kaleratu berri duen ‘Haizea garizumakoa’ diskoko kantak aurkezten.

IKASTAROAK> AURKEZPENA

'Humanitates': jakintzaren arlo guztietara gerturatzeko asmoz

Giza jakintzaren esparru zabalaren erakusleho diren sei ikastaro aukeran

Artearen historiari, erlijioari eta Aitzinaroko zein Erdi Aroko historiari buruzko ikastaroak izan dira azken bi urteetan Durangoko Arte eta Historia Museoa antolatu dituenak. Aurreko bi edizioetan parte hartu izan dutenek ikastaro horietan landutakoen jarraipena izango dute urtarrian hasiko den artearen historiaren, Aitzinaroaren eta Erdi Aroko historiaren gaineko hirugarren atalaren saioetan.

Matematika, ekonomia eta literatura, aurten lehenengoz

Durangoko Arte eta Historia Museoa arduradunek 2010erako programatu dituzten hiru ikastaro berriak Udal Liburutegian izango dira. Literaturako klasikoak irakurketa lagunduak egingo dituzte literatura ikastaroan; obrak sortu zireneko testuingurua ezagutu eta obren pasarteak irakurri eta komentatu dituzte: Lucrecio, Ciceron, Plutarco, Aristoteles, San Agustin eta Aristofanesen obrak landuko dituzte, besteak beste.

Aurten lehenengoz eskainiko dituzten ikastaroak hiru alor desberdinei dagozkie: matematika, ekonomia eta literatura klasikoari buruzkoak dira berriak.

Deustuko eta Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleak gidari

Ekonomia ikasgaiak ikastaroan, ekonomiaren historian eragin duten ekonomiariekin ideia nagusiak ezagutu eta egungo esparru makroekonomikoan ezbaian dauden topikoei buruz jardungo dute.

Matematika eguneroko gizartean saioetan, zientzia horrek gizartean duen eragina erakutsiko dute, kodeak, probabilitatea eta abar landuz. Matematika eta kultura erlazionatzeko helburuagaz jardungo dira ikastaro berri horretan.

Durangoko Museoa eta Udal Liburutegian izango dira, apirila arte eta ekaina arte, Euskal Herriko Unibertsitateko eta Deustuko Unibertsitateko irakasleek gidatuko dituzten eskolak.

Giza jakintzaren esparru zabalaren erakusleho ahalik eta osatu eta hedatuena lantzeko aukera era didaktiko eta ikasleen arabera moldatutakoan eskaintzeko helburua nabarmendu zuten Udaleko ordezkariak aurkezpenean.

Matematikak eguneroko bizitzan dituen aplikazioak eta egoera ekonomikoa ulertzeko gakoak landuko dituzte, besteak beste, ikastaro berrietako bitan.

Ikastaro guztietan izena emateko eta informazioa eskatzeko aukera urtarrilaren 16a artekoa da, 94-6030026 telefono zenbakira deituta. Ikastaroen prezio orokorra 30 eurokoa izango da, eta langabetuek eta 25 urtetik beherako ikasleek deskontuak izango dituzte izena ematean. ■ I.E.

Urtarrilaren 16a arte eman daiteke ikastaroetan izena

GEURE DURANGALDEA



Jose Martin Urrutia, 'Txotxe' irakaslea

Nagi puntu batekin

Nagi puntu batekin noa hastera urte berri honetako zutabetxoa, akaso urte berriei aurre egitea ez zaidalako larregi gustatzen, edo ez dudalako sinesten "berri" kontzeptu horretan. Ez pentsa pertsona ezkorra naizenik, nik nire burua baikortzat dut, baina pasatu berri dugun gabon giro honek gogaitu, nazkatu egiten nau. Egunduan kontsumoaren gorpilean ibili gara denok, eta nahiz eta pentsatu gure jarrera txorakeri bat dela, hor egongo gara engraiaren haginak osatzen.

Pasatu berri den urtean gobernuak kultura kontsumitzera gonbidatu gaitu, eta horretarako erraztasunak jarri. Gobernu sozialista baten ukitua jai zoriontsu batzuentzat?

Kulturaren jardura lagundu behar denik ez dut zalantzan jartzen, eta hau merkatalgune txikietan egiten bada hobe. Hala ere, horrek benetan ahalbideratzen al ditu kulturaren zabalkundea, hedapena eta parte-hartzea gure herrian?

Ez, erantzungo dute kanpaina horren bultzatzaileek; une, momentu jakin batetarako diseinatu dutela esango dute. Ez dakit zuei, baina kultura kontsumo hitzarekin nahastuta entzuten dudanean, horrelako atzerakada bat sentitzen dut; sentikorregia, agian. Urte muga gustuko ez dudanez, kultura data jakin batzuetan beste produktu bat bezala saldu beharra ere ez. Horrelako proposamenak ez lirateke urte guztian egin behar? CDen prezioa jaitsi behar? Erakustokiak dohainik jarri urtean egun gehiagotan? Zinema, antzoki eta aretoak zabaldu herri guztietan? Bertako taldeen ekoizpena eta programazioa benetan bultzatu?

Urte berria hasi berri da, baina betiko eskakizunekin; zertarako berria deitu aldatzen ez duenari. Aldatu dezagun dugun kultura kontzeptua, ez dezagun kopuruetara eta merkadotekniara mugatu, eta horrela urtea eta egoera "berria" aldarrikatu ditugu.

LIBURUTEGIA> PROGRAMAZIOA

Munduko herrialdeetatik Durangoko Udal Liburutegira euren istorioak ahoz kontatzera etorriko dira, urtarrian, ipuin kontalari bi. Entzule eta kontuzale helduei zuzenduriko ipuin kontaketa saioa izango da urtarrilaren 22ko lehenengoa, 20:00etan hasiko dena. *Munduko ahotsak* ekimenaren barnean programatutakoa da Matias Tarraga kontalariaren urtarrilaren 22ko saioa.

Urtarrilaren 22an helduentzako eta 30ean haurrentzakoak

Maite Arrese ipuin kontalariaren haurrei zuzenduriko saioa, aldiz, urtarrilaren 30ean izango da; 3 eta 5 urte bitarteko haurrentzat 12:00etan, eta 6 urtetik gorakoei 12:30ean ariko da.

Bestalde, duela bi urtetik Liburutegian dozena bat lagun poesiaren inguruan batzen dituen Poesia Tailerrak abiatutako eskaintza osatuz, nobela beltzari buruzko tailerra ipini dute asteon martxan. Literatura mota horretan aditua den Juana Lopez de Muniainek gidatuko du tailerra, urtariletik apirilera.

Ipuin kontalariak haur eta helduei zuzenduta, eta nobela beltza

Ipuin kontalari saioak urtaril amaieran, eta nobela beltzari buruzko tailerra Durangoko Liburutegian

Hamabost egunean behin Durangoko Liburutegian nobela beltzaz ikasi eta sakontzeko dozena erdi lagunek eman dute dagoeneko izena, baina, antolatzailerik nabarmendu dutenez, datozen egun eta asteetan ere ateak zabalik izango ditu interesa duen orok. Literatura mota horren testuinguruak, egiturak, lengoaiak ezagutzeko aukera izango da, besteak beste, irakurketa eta eztabaiden bitartez. ■ I.E.

Juana Lopez de Muniain aditua izango da saioak gidatuko dituen

Liburutegian bertan eman dezakete interesdunek izena



Munduko ahotsak jaialdiaren iazko saio baten irudia. J.F.

MUSIKA > ELKARRIZKETA

"Aldaketa handi samarra planteatzen dut disko berrian"

Hegoameriketako zenbait herritan "garizumakoa" deitzen duten eta udaren iragarle den haizearen oihartzuna dakar **Ruper Ordorika** oñatiarraren 'Haizea garizumakoa' hamabigarren diskoak. Kuba eta Argentinan izan ondoren, urtarril elurtu eta hotzean dator Ordorika Durangoko Plateruenean kanta berriak aurkeztera, hilaren 22an

Azaroan diskoa aurkeztu orduko hasi zinen kontzertuak eskaintzen; Bartzelonako Auditori edo Gatzagako aretoa lako oholtza desberdinetan aritu zara...

Horrela egin izan dut, bai. Harremana da desberdina, baina kontzertuan planteatzen dugun errepertorioa antzekoa izaten da leku guztietan; diskoan oinarritzen gara gehienbat, baina beste sasoi batzuetako kantein ere uztartzen ditugu berriak.

Leku guztietan aritzen zara gustura?

Leku guztietan gustatzen zait aritzea; bakoitzak aldeko eta kontrako aldea izaten du. Gu eramateko interesa dagoen lekuetara beti saiatzen naiz nola edo ahala joaten. Askotan ahazten dugu euskaldun jende asko herri txikietan bizi dela –batez ere, Nafarroa eta Iparraldean–, eta hor ere izaten da zaletasuna. Beti saiatzen gara hori zaintzen, nahiz eta gero Bartzelonan kamera antzoki oso handi eta formalean ere jotzen dugun.

Hain leku handi eta inportanteetan jotzen dutenek ahaztu egiten dituzte leku txikiagoetako zaleak sarri.

Nik buelta emango nioke esaten didazunari; niretzako ohore bat eta oso pozgarria da nitaz gogoratzea halako lekuetan. Kopuruak eta inportanteak dira, baina gehiago da zer arreta dagoen edo zer gogo dagoen gure kantak entzuteko. Hori da nik gehien estimatzen dudana.

"Estatu Batuetako musikari lagunekin berriz elkartzeko aukera paregabea izan da"

Hamabigarren diskoa grabatzeko, baina, Estatu Batuetara joan zinen...

Hango musikariekin egiten dudana laugarren edo bosgarren diskoa da hau, eta harreman oso luzea daukagu. Eurekin berriz bil-tzeko aukera paregabea izan da disko hau. Gero, kontzertuetan, beste taldekide batzuekin ibiltzen naiz; Plateruenean azkeneko egon nintzenean, adibidez, Jon Piris kontrabaxuan zela, akustikoan jo genuen. Beti aldatzen ari den taldearekin jotzen ditut zuzenekoak, horrela diskoak berbizitzen direla uste dudalako. Orain urtebetetik hona Arkaitz Miner, Lutxo Neira eta Hasier Oleagarekin nabil. Laukote moduan gabil-tza, diskoa grabatu dugunak izan ez arren.

Soinu berezia lortu nahi zenuelako egin duzu grabaketa Estatu Batuetan?

Hainbeste disko kaleratu ondoren, batzuetan behar duzu harantzago joan; harantzago joan izanaren sentsazioa eduki. Gero, teknologik ere badu bere ardura; eta inondik ezagutzen ez zaituen teknikari batekin

lan egitea inportantea da. Hark ez dauka zuri buruzko aurreiritzirik. Oso estudio zahar batean grabatua dago *Haizea garizumakoa*, teknologia analogikoarekin; beti maitatu izan dut musikaltasun hori.

Zelan sortu zen harremana?

Urte asko dira... Gitarristak, Ben Monde-rrek, *So'ik'so* diskoan grabatu zuen nirekin 1995ean, ni Estatu Batuetan bizi izan nintzelako, inprobizazio musikarako zaletasuna dudalako... Hori dela eta ezagutu nuen. Hurrengo diskoa —*Dabilen Harria*— grabatzen disko berri honetan lagun izan ditudan hirurak sartu ziren: Ben Monder, Skuli Sverrisson eta Kenny Wollesen. Musika-ri handi-handiak dira hirurak.

Zer beste onura dakar diskoak atzerrian grabatzeak?

Memoriaren mapan diskoa, esaterako, New Yorken nahastu nuen, eta hango musikariek. Eduki ditut halako esperientziak aurretik. Uste dut denok gure eginkizunetan berdintsu aritzen garela; haratago joan nahian. Halako batean, oso argi ikusi nuen hori egin behar nuela, eta dena bildu zen; gauza batzuk oso artistikoak, eta beste batzuk oso prosaikoak direnak.

Eboluzio nabarmena izan dela hamabigarren disko honetan esan izan duzu.

Eboluzio nabarmena dela uste dut, nahiz eta kontu hauetaz ez den erraz hitz egiten. Ondo konprenitzen dut entzuleak bere burutazioak edukiko dituela, baina nire ikuspuntutik aldaketa handi samarra planteatzen du disko honek. Bere denboran izan nituen nire zalantzak –diskoak badituela- bere lakuak–, baina jendeak oso ondo hartu du diskoa, eta askoz seguruago nago orain. Ordura arte euren koskak dituzten kantak jendaurrean ipintzen direnean boro-biltzen dira. Musika partitzen ez den bitartean zaila da jakiten.

Letra guztiak zeureak dira oraingoan.

Egia da, bai, orain arteko disko guztietan izan dela letraren bat idazleren batena. Oso eginkizun naturala izaten da; irakurtzen duzu han edo hemen testu bat, eta oso deigarri gertatzen zaizu kanta bat osatzeko. Kasu honetan, gehiago nengoen nire gauzetan. Dena dela, ez dut hain ez ohiko ikusten disko honetakoa, aspalditxo egiten ditut nire letrak. Ez nuen zentzu horretan pentsatu "orain egingo dut bat besteren letrarik gabekoa". Horrela gertatu da.

Beti modu berriak bilatzen, kantak sortzeko modua desberdina izan da?

Oso gauza ebidentea den arren, beti esaten dudana bezala, ezin zenezake disko hau egin bestea egin barik. Gauzak pilatzen zaiz-



Iñaki Aranbarri

kit, eta neure esperantza esperientzia gehitzea eta apur bat gehiago ikastea da. Aspal-ditxo neure ardura nagusia izaten dena da hasierako gogo edo arnas hori gordetzea: kanta irudikatu orduko bere horretan gor-detzen saiatzen naiz, asko ikutu barik.

"Oso estudio zahar batean eta teknologia analogikoarekin grabatu genuen disko hau"

"Kanta sortu duen hasierako 'arnasa' gordetzen saiatzen naiz"

Orijinaltasuna ez ei dozu bilatzen.

Nire ustez, agian, horixe da muina. Askotan baditugu ideia oso xelebreak orijinal-tasunari buruz. Sarritan egiten duguna izaten da berez ateratzen zaiguna ofizioarekin zuzentzea; kakotx artean, "arreglatzen" saiatzen gara. Musika arreglatzea esaten zaio horri, eta horrek askotan egiten duena teknika batzuk eranstea izaten da. Horrek batzuetan ekartzen duena hasie-

rako arnas hori galtzea izaten da. Nire esperientzia hortik doa, eta nik baloratzen dudana orijinaltasuna hori da; ez gauza ezberdin bat egitearren zernahi egitea. Hori esanda, baina, eta zorionez, musikak eta kante eta sormen mota guztiek ateak oso zabalik dauzkate, edozein gauza da zile-gi: ez dago lege edo metodorik.

Lehenengo "arnasa" hori, edo kanta sortzera bultzatu zintuen sentipena oso indartsua izango zen Laboa lagunaren heriotzaren ondoren sortutako kanta...

Kantatxo hori baten batek kantatu zidala esango nuke, zeren ia-ia bat-batean osatu nuen. Oso garbi ikusi nuen berarentzako kanta bat egin nahi nuela; oso ondo eza-gutu dudana kantaria eta pertsona izan da Mikel Laboa. Ez nuen batere pentsatu beharrik izan.

Zein izan zen heldu zenion kantaren hasierako hari edo "arnasa" hori?

Argi neukan lehenengo moldeko kanta bat egin nahi nuela, formalki kanta zahar bat bezalakoa. Mikelek gorpuzten zituen hainbat ezaugarri aipatzen ditut azken kantari; intuizio handia zuen, baina asko lantzen zituen ideiak. Bere ahotsagatik eta bere aho-tsa kokatzeko zuen moduagatik da Laboa hain berezia, eta gehienok esperimentatu izan dugu hori. ■ I.E.

MUSIKA > KONTZERTUAK

Kokein, Norman, Brankan eta Iñaki Salvador zuzenean

Zapatuan Brankan, Kokein eta Norman arituko dira Berrizen, eta Iñaki Salvador domekan

Fito Paez, Pablo Milanes, Silvio Rodriguez, Pedro Guerra, Benito Lertxundi eta Mikel Laboaren abesti ezagunen bertsioak eskainiko ditu, besteak beste, *Te doy una canción* ikuskizunean Iñaki Salvador donostiarrak bere pianoagaz, musikari taldeak lagunduta. Ainara Ortegaren ahotsa, eta Hasier Oleaga, Javier Mayor, Asier Hernandez eta Ana Pimenta musikarien doinuak izango ditu lagun.

Berrizko Antonio Deunaren jaien azken egunean, urtarilaren 17an, domekan, 19:30ean Kultur etxean izango da Euskal Herriko jazz musikaren izen handia den Salvador. Asteburuko Berrizko jaietako kontzertuetan azkena izango da Salvadorrena, baina bestelako doinuak ere izango dira.

Zapatu gauerako prestatutakoa, hiru rock talde euskaldunen emanaldia da: Kokein eibartarrak eta Ondarroa, Berriz eta Eibarko musikariak biltzen dituzten Norman eta Brankan taldeak arituko dira Antonio Deunaren jaiak plazako oholtzatik girotzen urtarilaren 16an, 23:00etan.

‘Te doy una canción’
aurkeztuko du Iñaki
Salvadorrek domekan

Zapatu gauean, plazan
da hiru rock taldeen
kontzerturako hitzordua



Iñaki Salvador, ezkerretik lehenengoa, ‘Te doy una canción’ ikuskizuneko taldekideekin.

Denis Alberdi bateria-jotzaile berriztarra taldekide duen Brankan hirukotea, abenduan disko berria kaleratu duen Eibar eta Ondarroako musikarien Norman taldea, eta Kokein arituko dira zapatuko jaialdian.

Iaz oholtzarik oholtza eta diskoak kaleratzen hamarkada bete zuen Kokein taldeak 2007an kaleratutako *Mundu margotu berri* bat diskoko kantak eskainiko ditu, eta 2009ko abenduan Hotsak diskoetxeagaz argiataratu zuen diskoa aurkeztuko du Normanek.



Abenduan kaleratu du Norman taldeak disko berria.

ANTZERKIA > EMANALDIA



‘Lorategia’ lana Durangon aurkeztu zutenekoa. J.F.

Teatro Paraiso gasteiztarren ‘Kri, kra, kro’ domekarako

Hiru eta zazpi urte bitarteko ikusleentzako zita, San Agustinen, domekan

Gasteizko Teatro Paraiso antzerki taldearen eta Belgikako Guimbarde antzerki taldearen arteko kolaborazioaren fruitu berria da datorren domekan, 18:00etan hasita, Durangoko San Agustin kulturgunean izango dena. Hiru eta zazpi urte arteko haurrentzako apropos prestatutako ikuskizuna da *Kri kra kro*, antzerkia ikus-entzunezko irudiekin elkarlanean duena oholtzan.

Aurretik ere gurean izandakoak dira Paraiso antzerki taldeko sortzaileak; aurreko hartan *Lorategian* lana aurkeztu izan ziren San Agustinen. Umeei

zuzenduriko aurreko ikuskizun hartako taldeak eta Paco Ibañez musika irakasle gasteiztarak sortu dute domeka honetan ikusgai izango den ikuskizuna.

...Eta zergatik?

Irudiz inguratzen dituen mundua ulertu eta ordenatzeko umeei egiten dituzten galderak dira ikuskizunaren ardatza: gutxinaka eza gutzen doazen mundua ulertzeko duten bidea direnak. Mundua ikusi bakarrik ez, jolas bilakatu eta gozatzeko, ikus-entzunezko irudiak uztartzen dituzte Paraisokoek euren lanetan. ■ I.E.

Teatro Paraiso eta
Guimbarde taldeen
elkarlanaren emaitza

Umeei mundua ulertu
guran egiten dituzten
galderak ardatz

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

www.plateruena.net

URTARRILAK 16 19:00etan

EKON EKONFEST - AZKEN KONTZERTUA
EKON-SHARON STONER-ERASO!-SEXTY SEXERS
ANGER-ESTRICALLA
KONTZERTUA. Sarrera: 16-19 euro.

URTARRILAK 22 22:00etan

RUPER ORDORIKA
KONTZERTUA. Sarrera: 10-12 euro.

URTARRILAK 29 22:00etan

BONECRUSHER FEST 2010
KONTZERTUA. Sarrera: 20-25 euro.

Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.: 946 030 300



KRI KRA KRO
Paraiso Antzerki Taldea (Gasteiz)

Urtarrilak 17 • 18:00etan

San Agustin
KULTUR
GUNE
DURANGOKO UDALA



ERITZIA[>]

Gutunak @

Gorka Erdoiza pulpitutik, garai bateko abadeen antzera

Atutxa lagunak arrazoa: zalantza daukat zu eta gu teilatupe berean bizi ete garen. Beno, azken batean, zeu be bat zatoz gugaz, eta horretan behintzat ez dago eztabaidarik. Baina badaukat esperantza egunen batean bide beretik joateko.

Iritzi apalekoa zarela dinozu (birritan gainera), baina, ozpin jario-ka dabilenaren iritzia nekez da apala, eta gitxiago bere herriko lagun bat (Nerea Mujika) hain modu iraingarrian larrutzen dabenarena (zure lehenengo gutunari buruz nabil). Gainera, bere begirunea eskatzen dozu bigarren gutunean! Barkamena eskatzea zor deusazulakoan nago, baina tira, ez deusut neuk esango zer egin behar dozun eta zer ez.

Zu, oster, bai. Zu niri kontu eske hasi zara, zeharka bada be. Batzuk erraztasun handia daukazu inoren lana epaitzeko eta juzkuak egiteko! "Nik ere ez dut bere burua hain abertzaletzat duen hori aspaldian lanean ikusi". Horixe idatzi zenduen niri buruz, oker ez banago. Bada, hiru kontutxo esaldi horren inguruan: 1- Nire burua abertzaletzat daukadala zeuk esan dozu, eta ez nik. 2- Salaketa gogortxo zeurea, ondo jakin barik zer egiten dodan eta zer ez, ezta? Zeuk esandakoa eta zeuk esandako moduan egin behar ete doguz, ba, gauzak? Hori baino ez genduen falta! Garai bateko abadeak ekarri deustazugogora. Pulpituan jarri eta ahalguztidunak balira legez herritarrek seinalatu eta "zu bekatar, zu bekatar, eta zeu be bai" esaten eben. Eta 3: Aspaldian ez ei nozu lanean ikusi. Beraz, zeure ustez aspaldian ez, baina inoiz egin dot lan. Tira, horrek trankilago izten nau. Bai jauna! Eta "Ego te absolvo" esaten badeustazu, askoz be trankilago. Lanean aritzeko modu asko dago, baina ingurukoak iraintzea lana baino azpilana da, eta teilatupe hori ez dot gogoko.

Zure beste esaldi bat irakurrita irribarretxoak irten deust. "Bide okerretik zabiltza, mutiko". Hori be neuri zuzenduta, jakina. "Horrelakoa ez, mutiko" esatea baino ez zenduen falta (orain urte batzuk telebistan entzun nebanean be barretxoak irten eustan). Zure burua apaltzat hartu dozu, eta ni mutikotzat hartu nozu. Ez dot irain moduan hartu, jakina. Hartzekotan laudorio modura hartuko neuke. Izan be, mutikotako oroitzapen ederrak ditut. Zure gutunean, neuri zuzendutako parafotxoan behintzat, eupada moduko bat be ikusten dot, erronka moduko bat, ea nor den abertzalegoa, nor euskaldunagoa eta abar. Norberaren buruagaz harro egotea ondo dago, baina norberaren buruari gorazarre egitea, ez dakit ba, ez da oso polito gelditzen. "Inor (sic) baino hobeto dakit zer den herri honetan abertzale izatea". Zeure berbak dira. Ez deusat joko horri segituko, aspaldi itzi neutsan-eta mutiko izateari.

Durangoko Azokari boikota egitea abertzale izateagaz bat ez datorrela esan neban, eta itxura baten zure abertzaletasuna erakusteko premia sentitu dozu. Nire asmoa ez da inori minik egitea, baina kontxo, Euskal Herriko puzzlean Azokari bere lekua kendu eta kolpe batez desagerrarazi gura dauena (boikotaren helburua horixe da), ba, abertzaletasunaren eta euskaltzaletasunaren parametroetatik urrintxo ete dabilen nago. Gainera, Azokari "zirku" deituz gero, zer esanik ez. Ba, eskerrak pailazo mordoa batu ginela bertan.

Amaitzeko, ez jat bape etikoa begitandu euskal idazle bat hartu eta Anbotoko irakurleen aurrean zure pentsamoldeagaz eta Azokari zuegindako kritikekin lerratzea. "Recurso ala autoridad" moduko bat ikusi dot hor, horren babespean zure jarrerak indar handiagoa hartuko dauelakoan-edo. Bere liburuek, behintzat, ez deusie egin Azokari zuk eskatzen dozun boikota, hantxe ikusi nituen-eta. Eta idazleak berak be ez, bera be Durangon egon zen-eta. Eta hau xe aitatu eban, besteak beste: "Azoka garai batean izan zen Ibilaldia, Korrika eta horrelako baten modukoa, ekintza edo bilgune sinbolikoa, neurritz kanpokoa. Beharbada, bere benetako neurri etorri

da, ez da neurri txarra, neurri polita da." Zerikusirik ez zuk esanda-koagaz. Beste kontu bat da gaur egun ze iritzi daukan berak euskal literaturari buruz (argi eta garbi azaldu eban *Sautrela* programan), baina etorri, etorri zen Durangora. Bere iritzi kritikoa nahierara lotu dozu zure boikot eskaeragaz. Berrero be, gaiak nahaspilatu, nahaste-borraste itzela egin, dena lapikora bota, eta zure edabe pozoitsutik edaten emon gura izan deuskuzu, gure barruok zirintzeko.

Gure ika-mika txiki honegaz jarraitu gura badozu, bakarrik egin beharko dozu. "Ika-mika luzeak ondorio latzak beti" dino esaerak. Nik esan ditut esan beharrekoak. Pontifikatzen jarraitu gura badozu, ekin, "apaizak be azken hitza bere". Igo pulpitura, zeremoniatsu, burua tente eta mingaina pozoitsu, zeu zara-eta ahalguztiduna eta zeuri jagotzu besteen asmo onak errauts bihurtzea. Ite, missa est!

Mikel Azkarraga Etxegibel - Abadiño

Eskerrik asko

Une bat hartu dut inpotentziaren zurrumbilora, badaezpada, kondenatutako helmuga gabeko bidaia etengabea, norabidez erratu den uso bati begiratu eta iparraldetik etorritako haize ufadak argitutako zeru zatian, nire aberrian ikusi izan nituen izar berberei nire herkide eta lagunak zain edo jagon ditzatela erreguka. Anbotopean hedatzen den eskualdeaz oroitzeko.

Udazken amaierako elur eta denborale goiztiarrek, ez dituzte zuen barne-suak ito, eta hauen epela ehunka kilometrora eraitakako harresi hotz hauen artean ere nabari da. Eskertzekoa da.

Baina nola iritsi eskerrak ematera, hiztegiak hitzen bidez, arrunckerietan edo ohiko zurikerietan erori gabe. Parte batean behintzat, ezinezkoa zaidala iruditzen zait. Ahalegindu nadin.

Berrogei minutuz zail egiten da berotasun hori guztia helaraztea, zail izaten den bezala berrogei minutuz sufrimenduzko malkoak sekula marraztutako irribarre zabalenarekin estaltzea, baina bi zentrimetrok banatutako eskuek indar handiko zubi-lana egiten dute lorik egin ez duten begi zuloak estali eta lurretan egin den manifestazio jendetsuenetakoaren berri emateko. Sekula ezin izan ditut emoziozko negar malkoak eutsi hone-taz oroitzean, eta orain ere larri nabil ur tanta gaziak eskutitza izorratuko ez badidate. Eta bost minutuk zertarako ematen ote dute denbora, "Ama, lasai, ondo nau", "Zelan zauzie zuek?", "Emon besarkada bat amamari", "Emon eskerrak eta goraintziak danai" esatetik aparte? Baina 20, 19, 18, 17 "Eñaut ondo zauz, jentie oso ganiñ dau, danak goraintziak bialtzen dotzuez"; eta berriz negar artean 5, 4, 3 "Musu bat, ama"; 2, 1, 0. Eta horrek bakarrik, zeropean zegoen termometroa urtu du Navalcarnero-ko espetxean.

Hitzak sarri geratzen dira motz zor sortu berriak kitatzeko orduan, baina zuek sortu dizkidazu sentimendu hauek guztiak, nire baitan hazi den berotasun hau, zuena baita, zuei eskerrak baita, eta erraz kitatzeko ez dudaz zor hau, aiez ale, apurrez apur kitatzen ahalegintzen naizen bitartean hartu ezazue mesedez hitzez eman daitekeen besarkadarik beroena; bero, estu, handi... maitakorrena.

Zuek baitzarete gure pazientziaren iturria, edo zita kontenporaneoago bat hartuz, gure pausuak sortzen dituen amaigabe-ko erregaia.

Jarraitu ezazue zaretan bezalako pertsona onak izaten, jarraitu ezazue orain arte bezala, eta itzultzen naizenean, itzuliko bainaiz noizbait, neronek emango dizuet gaur hitzez emandako besarkada. Animo guztioi, eta eskerrik asko!

Eñaut Aiertzagüena - Navalcarnero-ko espetxea (Madril)

Sei hankako mahaia



Sergio Murillo
EAJ

Euskadi 2020, Durango 2010

2008an hasita, EAJk gizarte eragileen, nazioarteko adituen, herritarren, kolaboratzaileen eta beste hainbaten laguntzagaz, 2020 urtean Euskadi izango dena amesten jardun eban. Handik, hainbat lan ildo zabaldu dira, bat-bateko inprobisaziotik ihes eginez, etorkizuna egunero eraikitzeko.

Durangoko EAJk, 2020ko Euskadiren eraikuntzan irmo, 2010eko udal aurrekontuetan lau ildotan egingo dau ahalegin berezia. Batetik, krisiak gogorren eragin deustenei laguntzeko gizarte politikak indartuko ditu; herriak aurrera egitea ona da, baina pertsonaz osotutako herria dela ahaztu barik.

Bestalde, herriko kultur erakundeen, elkarten eta kolektiboen diru-laguntza eskaerei inoiz baino diru gehiago bideratuko deustegu. Durango eta durangarren izaera eta izana zaintzeko bidea dela ulertzen dogu, gure identitatearekin, kulturarekin, hizkuntzarekin konpromiso sendoa daukagulako.

2020ko Euskadi izango bada, 2010ean be lan egin behar dogu, Durangotik, jasagarritasunaren alde; horretara bideratutako aurrekontua bikoiztu egingo dogu.

Azkenik, ezin doguz ahaztu etorkizuneko ekonomia eragile nagusia izango diren barrikuntza eta formakuntza; udal eskumenak dagozen arloetan gogor ekingo deustagu horri be.

Aurrekontua Udalak daukan kudeaketa tresna garrantzitsuena da, eta politika egiteko modurik eraginkorrena; politika, hizki txiki, egunero egiten den lan apala delako politika, herritarren arazoei erantzuten deustan politika. Arestian aipatutakoak gauzatze-ko, non emon da murrizketa? Aurreko batean be esan dogu arduratsu jokatu dogula. Hagaitik, Udalak antolatzen dituen ekintzetan aurrekontua murriztuko dogu. Horra hor gure erantzukizunaren adierazle argi bat.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)

diruz lagundutakoa



anboto
durangaldeko astekaria

Anboto komunikabideak Elkarte
2010eko urtarrilaren 15a - 8. urtea - 357 zk.

Laguntzailea:	Eta honako Udal guztiak:
	Abadiño Elorrio Mallabia
	Atxondo Garai Mañaria
	Berriz Iurreta Otxandio
	Durango Izurtza Zaldibar

Zuzendaria: Jone Guenetxea.

Erredakzio burua: Joseba Derteano.

Administrazioa: Itziar Belar, Miren Abasolo eta Naiara Alzaga.

Publizitatea: Itziar Azula, Goretti Alonso eta Amaia Huarte.

Erredakzioa: Aitziber Basauri, Pello Mugarza, Itsaso Esteban, Markel Onaindia eta Amaia Ugalde.

Testu zuzentzailea: Igor Elortza.

Maketazioa: Ainhoa Arizmendiarieta.

Argazkilariak: Iban Gorriti, Ana Domínguez eta Kepa Aginako.

Herriarren partaidetzagaz sortutako kultur lana



‘Otxandioko umeak Ala Kinkirrinera...’ izeneko disko-liburuak joan zen abenduan ikusi eban argia. Urte luzez jente askok egindako lanaren ondorioa da. Herriko haur-kantak oinarri, musika, marrazkiak eta idatziak biltzen ditu. Kultur-ondarea egungo moldeetara egokitzea zen bultzatzaileen helburua.

Disko-liburuaren oinarria Emilio Donadok batutako abestiak dira

Otxandio eta ingurueta-ko kanten bilduma kaleratu eben 2003an, Emilio Donadok urteetan egindako bilketari forma emonez: *Canciones populares vascas de Otxandio, Olaeta, Gatzaga, Legutio y Ubidea*. Bertan, haur-kantekin loturiko atal bat zegoen, eta, hain zuzen be, abesti horreek dagoz disko-liburu barri honen oinarrian. Herri Ikastetxeko umeek abestuta eta hainbat musikariren parte-hartzeagaz, 23 kanta datoz barruan. Aitita-amamek abesten zituen kantak, eskura ditue orain Otxandioko belau-naldi barriek.

2007an, Irale eta Zenbat Gara elkartetik, irakasleentzako formazino ikastaroa antolatu eben Otxandion; kanta, jolas eta herri-

ipuinak zitueen langai. Hori lantzeko, egokiena Emilio Donadok egindako bildumatik tiraka has-te zela pentsatu eben. Josu Zabala-ren eskutik abiatutako ikastaro horren amaieran, irakasleek grabazinoa egin eben, baina zabaltzeko asmorik barik.

Ikastarotik liburura

Ikastaroko esperientzia ondo baloratu arren, “lana amaitu barik” zegoen sentsazioagaz geratu ei ziren antolatzaileak. Tradizinoari gero bidea emoteko, lehenengo pausu hareekin jarraitzeak merezi ebala ondorioztatu eben.

Egitasmoaren bigarren zati honetan, lantegian jorratutako kantak gauegungo moldera eka-

rri eta eskola-umeen ahotan plazaratzeko tresna sortzea izan zen kideen asmoa. “Aukera paregabea” iruditzen jaken Otxandioko eta inguruko haur-kantak suspertu eta jendarteratzeko.

Halako lan batek eskolako eremua gainditzen dauela ulertuta, hainbat erakundetako ordezkari, eragile eta herritarrekin konpartitu eben ideia, eta aurrera egitea erabaki eben. Lan-taldeak osatu ziren ondoren, proiektuaren beharrei ahalik eta eraginkorren erantzuteko.

Bakotzak beretik

Egitasmo honen ezaugarri nagusietako bat partaidetza zabala da. Disko-liburu batena izan beharrean, askorena dela esan leiteke. Herritarrei bertan parte hartzeko aukera emon jake, eta horrenbeste iturritatik edanda, ekoizpen bete-betea dago kalean.

“Herri-kulturaren zuztarrak makaltzeko arriskua ageri den globalizazio sasoiotan, geurea-ri eutsi eta goratzeko saiakera” be badago lan honetan, bultzatzaileen arabera. ■ M.Onaindia

Eskolan egindako lana plazaratzeak merezi ebala ondorioztatu eben

Hainbat erakundetako ordezkari, eragile eta herritarrekin konpartitu dabe ideia



“Maitasun handiz egin dogu lan”

Musika munduan proiektu ugartan ibilitakoa da Josu Zabala; ez da geldirik egotekoa. Gustura geratu da disko-liburu honetan egindako lanagaz, eta parte-hartzaile guztien borondatea eskertu eta baloratu gura izan dau.

Abestien moldaketetan jardun dozu. Guk egin doguna birsorkuntza izan da, lehenago herritik atera ziren kanta batzuk oraingo moldeetara ekartzea. Denpora eta eboluzinoa zalantzan jarritz egindako “jauzi mortal” baten antzekoa.

Lankide gehienak herritarrek izan zarie, gainera...

Kanpoko jentea be badago; ez dogu mugarik jarri. Kontua ez zen disko normal bat egitea; garrantzitsuena, herritarrek eurena zela ulertzea zen; batez be, umeek. Izan be, ez leuke zentzurik izango abesti horreek ni lako baten ahotsean grabatzeak.

Profesionalak be izan dira tartean. Elaborazino tekniko edo lan profesional bat badago, halan esan gura bada. Baina bereziena, profesional, amateur eta autentikoen arteko gurutzaketa izan da. Umeek grabatu eben lehenengo, gero etxe okupatu bateko neska batek flauta

jotzen eban, trikitia handik, panderoa hemendik...

Produktu iraunkorra egin gura izan dozue...

Museoko lanetik gauza bizi batera pasatu gara, gerora be balioko dauena. Gaur egun, diskoa debalutua dago, eta uste dot lan osatu honegaz jentek kontutan hartuko dauela. Nire ardura da umeen eta euren amamen gustukoa izatea. Bestalde, prozesua be interesgarria izan da; maitasun handiz egin dogu lan guztiok, eta borondatez. Finantziazioa lortzea be erraza izan da, jentek honen helburua ulertu dauen seinale.

“Herritarrek eurena zela ulertzea zen garrantzitsuena”

“Herrian kantua bultzatu gura dogu”

Otxandioko Herri Ikastetxeko zuzendaria da Maitere Larrañaga. Proiektu honen lan handienetako bat bere taldeak egin dau: abestiak ikasi eta irakasteko koordinazioa. Pozik oroitu ditu prestaketa eta grabazio aldiak.

Irakasleak hasi zinien lehenengo istorio honegaz...

Ikastaro bat egin genduen Josu Zabalgaz orain dela bi urte, eta Emilioren kantutegia erabiltzea adostu genduen. Abestien jatorria, zertarako eta zelan erabili... Azkenean grabatzea pentsatu genduen.

Eta gero, umeekin...

Polita izan zeitekeela pentsatu genduen, eta aurreko ikasturtean horretan jardun genduen. 2 urtekoekin hasita 6.mailara arteko gela guztietan hiru-lau abesti banatu ziren, eta maiatza arte lantzen ibili ginen. Gero, aste eta erdian estudiara bueltaka ibili ginen.

Umeak formal portatu ziren?

Gogoz hartu eben. Gainera, hasieratik esan geuntsen diskoa grabatuko genduela, eta pozik ibili ziren. Grabazioan, aurikularrekin-eta, barregura sortzen jaken, gauza barria zen-eta.

Zer helburu zeunkien hasieran? Zelan baloratzen dozue lan barria?

Herriko kantak dira, eta galtzeko arriskua zegoen. Lan honegaz, herrian zeozter dagoenean, abestiak kantatzea bultzatu gura dogu; erabilerarako tresna dela uste dogu. Aurkezpena be egin genduen bide horretan, eta pozik gogoz lanagaz.

Kantagintza edo kantuari garrantzia emoten deusazue?

Bai. Gainera, umei asko gustatzen jake kantatzea. Disko-liburu hau aurrerantzean be erabiliko dogu ikastetxean, eta uste dot inguruko eskoletarako be lagungarria izan leitekeela. Eredu be izan leiteke.

“Aurikularrekin-eta, barregura sortzen jaken umei”



Maiatzetik abuztura arteko grabaketa eta diseinua

Mekoletako grabaketa estudioara txango bat baino gehiago egin behar izan eben ikastetxeko irakasle eta ikasleek. Dozenaka ume taldeka joan ziren estudioara, 2009ko udan zehar.

Kantuen ekoizpen artistikoa eta moldaketen ardura Josu Zabalak eroan eban, baina Bixente Martinez eta Rafa Ruedak be landu zitueen hiru-lau kanta. Bingen Mendizabalek, gainera, bandarako moldaketak egin zituen. Aipatzekoa da herriko hainbat musikaririk bere aletxo ipini ebala. Grabazioa eta nahasketen kargu Timoteo Ozaeta egin zen. Disko-liburu honetan, bi CD aurkitu geinkez. Lehenengoan 23 kanta dagoz, umeen ahots eta guzti. Bigarrenean, 23 horreetako 17 era instrumentalean, abestera animatzeko hel-

buruagaz. Tartean ageri dira *Ala Kinkirrinera*, *Bat: Matxin Parrat* edota *Behin joan nintzan azokara*.

Musika soilik ez

Bestalde, haurrek egindako marrazkiekin liburua diseinatu eban Ixone Uribe. Gainera, Xabier Olaso, Igor Elortza eta Unai Iturriagak testuak sortu zitueen; Olasoren berbak hitzaurrean irakurri leitezke, eta Elortza eta Iturriagarenak abestien letren alboan, kontatzen denari beste buelta bat emonez.

Otxandioko Udala, Andresa Landa fundazioa, Zenbat Gara elkar- tea, Soinubil eta Guraso Elkartearen babesak jaso eban lan honek. Disko-liburua lortzeko: eskaerakinkirrinera@gmail.com



ANTONIO DEUNAREN JAIK

URTARRILA 2010



*Berrizko Udalak
jai zoriontsuak
opa deutsuez!*



BERRIZKO
UDALA

Antonio deunaren jaiak 2010ko urtarrila Berriz

Urtarrilak 15 barikua

19:30 Olakueta Plazan "Sagardotegi Ibiltaria". Trikitilarien erromeriarekin alaituta. Jarraian, Olakueta Plazan odoloste-jana.

21:30 Olakueta Plazan Balkoitik Balkoira bertso emanaldia:

Miren Amuriza Iratxe Ibarra Gorka Lazkano

Urtarrilak 16 zapatua

17:00 Olakueta Plazan (edo probalekuan, eguraldiaren arabera) HIPO eta TOMAS pailazoen "HERRI KIROLAK" saioa aurkeztuko digute.

18:00 Olakueta Plazan pilotalekuan San Antonioko IV. Pilota Txapelketako finalak.

19:30 Olakueta Plazan Benta Zaharreko Mutil Alaiak kantujiran

21:00 Olakueta Plazan ibilalditxo egin ostean, Donen Atxa altxatuko dute Olakueta Plazan.

23:00 Olakueta Plazan rock kontzertua: • Brankan • Kokein • Norman

Urtarrilak 17 domeka (Antonio Deunaren Eguna)

9:30-12:00 Antonio Deunaren basilizan meza

10:00 BTT martxa-irteera Olakueta Plazan. Izen-ematea doan

11:00 Eskualdeko XXIV. Barazki eta Fruitu Erakusketa probalekuan.

11:00 Trikitilariak herria girotuko dute.

11:00 Egunean zehar, Olakueta pilotalekuan, Artisau Txokoa.

12:00 Urtiaga Plazan Bizkaiko bildots dastaketa.

12:30 Iremiñe dantza taldearen ekitaldia Olakueta Plazan.

17:30 Olakueta Plazan erromeria Trakets taldearekin.

18:00 Kultur Etxean I.Eskultura Lehiaketaren sari banaketa.

19:30 Kultur Etxean: Iñaki Salvador "Te doy una canción" kontzertua

Urtarrilak 18 astelehena

16:30-18:30 Barrakak doan izango dira.

19:00 Pilotalekuan askaria eta herri-kirolak:

Aizkolariak: Ugaitz eta Aratz, Mindegiren aurka

Harri-jasotzaileak: Miren Urkiola, Urdax eta Idoia Etxebarria.

• Ikuskizuna, txorizo ogitartekoa eta edaria. Sarrera: 1€

21:00 Olakueta Plazan afaria.

Urtarrilak 25 astelehena

20:30 Donen Atxa kenduko dute.

Urtarrilaren 23tik 25era bitartean, Antonio Deunaren Proben Sariketa Nagusia:

Urtarrilak 23, zapatua: I. Zaldi-probak

Urtarrilak 24, domeka: I. Asto-probak

Urtarrilak 25, astelehena: 54. Idi-proba

**JAIXETAN BE EUSKARAZ ETA
BERDINTASUNEAN!!!
ERASORIK, EZ!!!**

ETXEBARRIA
Tatarrak
Papera
Opariak
Fotokopiak
Iturriza, 14 Tel/Fax: 94 682 79 56 BERRIZ

AZKONDO
ELEKTROTRESNAK
Iturriza, 8
Tel.: 94 682 42 93
48240 BERRIZ

ORLEGI
TABERNA
Tel.: 94 682 48 28 Iturriza, 5 BERRIZ

fonda
TABERNA
Iturriza kalea, 9
Tel.: 94 682 40 09
48240 BERRIZ
Bizkaia

Harategia - Urdaitegia
JAYO
Iturriza, 21 Tel.: 94 682 44 64 BERRIZ

Amalur
Liburudenda
aldizkariak papera opariak
Iturriza, 29, Berriz Tel.: 94 682 62 48

NESTOR ALDEKOA
HARATEGIA - URDAITEGIA
Especialitateak: Behi Okela,
Bertoko Txahala, Bildotsa,
Txarrikiak eta Odolosteak
Iturriza kalea, 10 Tel.: 94 682 43 20 - BERRIZ

IZARO
ESTILISTAK
Tel.: 94 682 68 83
Iturriza kalea, 50 • 48240 Berriz

SAN ANTONIO, 1
48240 BERRIZ-BIZKAIA
Tel.: 94 682 63 46
pedrojuan
JATETXEA

TABERNA - JATETXEA
TOKI-ONA
jai zortotsuak
opari deusuezi
Tel.: 94 682 41 02
94 682 41 97

Juan Ramon Azkonizaga
Ortuzar auzoa, 1 - IZURTZA Biltegia: 94 681 06 52
Banatzailea: 

Juliantxu
Jatetxea
94 682 40 77 - 48240 Berriz (Bizkaia)

Dia
Zengotitabengoa • Tel. 946 824 215 • BERRIZ
Harategi-Urdaitegi zerbitzua ere

AGENDA >

>ANBOTOk agendan ezer iragarri gura badozu, agenda@anboto.org helbidera idatzi edo 94 623 25 23 telefonora deitu egiguzu, eguazten eguerdi aurretik.



Urtarrilaren 15ean, 22:00etan DANTZA ETA UMOREA

Hermanos de baile antzezlaneko dantzariak argi daukie dantzak sortzen dituen loturak sakratuak direla. Flamenkoa, break dance eta tap claqué koreografiak borroka egingo dabe gaur, Arriola antzokian. Kaleko artistak euren dantzaren defentsan odola emoteko prest izango dira. Yllana eta Adelante Artistica taldeek sortutako lana da, eta, beraz, Arriolara doanak musika ona eta umorea segurtatuta izango ditu.

ANTZERKIA

DURANGO

- » **'Kri kra kro' (Paraiso Antzerki Taldea)**, umeentzako antzerkia, urtarrilaren 17an, 18:00etan, San Agustinen.



ELORRIO

- » **'Hermanos de baile' (Adelante Artística eta Yllana)**, urtarrilaren 15ean, 22:00etan, Arriolan.

ERMUA

- » **'Hamster' (Juanjotero produkzioak)**, urtarrilaren 15ean, 22:15ean, Lobiano kultur gunean
- » **'Kartoibiraka' (Markeliñe)**, umeentzako antzerkia, urtarrilaren 16an, 17:00etan, Lobiano kultur gunean



BESTEAK

IURRETA

- » **Irakurleen Txokoa, 'Sostiene Pereira' liburuagaz**, urtarrilaren 19an, 19:00etan, liburutegian.
- » **Irakurleen Txokoa, 'Larrua hotz' liburuagaz**, urtarrilaren 20an, 19:00etan, Liburutegian.

DANTZA

ZORNOTZA

- » **"1.01" (Dantzaz konpainia)**



urtarrilaren 15ean, 21:00etan.
Zornotza Aretoan.

DEIAK

DURANGALDEA

- » **Sahararen aldeko euskal karabana**, Abadiño, Atxondo, Garai, Iurreta, Izurtza, Mallabia, Mañaria eta Zaldibarren. Urtarrilaren erdialdera arte. Arroza, lekaleak, pasta, azukrea, atuna, sardinak eta konpresak batuko dira. **Berriren urtarrilaren 29ra arte luzatu da kanpaina.**

DURANGO

- » **Hiri debekatuaren 2. mapa**, herriko puntu beltzak identifikatzeko diagnostikoa. Urtarrilaren 15ean eta 16an. Informazio gehiago: Andragunean.
- » **Genero biolentziaren aurkako elkarretaratzea**. Eguenero, 20:00etan, Andra Mariako elizpean. Plataforma Feministak deituta.
- » **Odola emoteko aukera**, eguenero, 16:30etik 21:00etara, Anbulatorio Zaharrean. Mugarra odol-emaile elkarteak deituta.

ERAKUSKETA

ABADIÑO

- » **Iosune Urriagaren margolanen erakusketa**. Urtarrilaren 17tik 23ra, Errota kultur etxean.

BERRIZ

- » **Berrizko I. Eskultura Lehiaketako lanak**. Urtarrilaren 17a bitartean egongo dira ikusgai, Kultur Etxean. Urtarrilaren 17an izango da **sari banaketa**.18:00etan.



ERMUA

- » **Gemma Monrealen margo erakusketa**, urtarrilaren 17a arte, Lobiano Kultur Gunean
- » **'Afrikatik ibili nintzen'**: Jairo Berbelen argazkien erakusketa. Urtarrilaren 17a arte, Ermuko

Lobiano kultur gunean.

- » **Margo erakusketa. Argiñe Berrojabilzen margolanak**. Urtarrilaren 18tik 31ra, Lobiano kultur gunean.

DURANGO

- » **Uribarriko Andra Mari. 500 urteko historia**. Urtarrilaren 29a arte, Arte eta Historiaren Museon.



ZORNOTZA

- » **Esentzia eta fragantzia naturalen erakusketa**. Urtarrilaren 16a arte, Zelaletan.

IKASTAROAK

DURANGO

- » **Euskal dantzen ikastaroa**. Martitzenero, 19:30etik 21:00etara, Plateruenean, AIKO taldearen eskutik.
- » **Adinekoentzako ikastaroak**. Landare kontserba eta mermelada ikastaroa, adimen emozionala, etxeko kontabilitatea (Excel), argazkiak moldatzeko ikastaroa, landare osasungarriak eta elikadurari buruzko ikastaroa, barreterapia eta adinari buruzko ikastaroa. Izen-emateak, hilaren 18tik aurrera Durangoko adinekoen udal egoitzan.

IURRETA

- » **Jendaurrean hitz egiten ikasteko ikastaroa**, urtarrilaren 18an, 20an, 25ean eta 27an, eta otsailaren 1ean, 3an, 8an eta 10ean. 16:00etatik 19:00etara, Iurretako Institutuan.



MALLABIA

- » **Menpeko pertsonen zainketarako formakuntza**. 2010eko lehen

seihilekoan egiteko, 400 orduko ikastaroa. Langabezian dagoen emakumeentzat. Izena emoteko azken eguna, urtarrilaren 21a. Informazio gehiago: 943 17 03 27 (Loredi Salegi, Udaleko Ongizate Saileko Arduraduna).

- » **Umeen zainketarako formakuntza**. 2010eko lehen sei hilabetekoan egiteko, 300 orduko ikastaroa. Langabezian dagoen emakumeentzat. Izena emateko azken eguna, urtarrilaren 21a. Informazio gehiago: 943 17 03 27 (Loredi Salegi, udaletxeko Ongizate Saileko Arduraduna).

IPUINAK

ABADIÑO

- » **Alaitz Muro umeentzako ipuin kontalaria eta Agurtzane Villate marrazkilaria**, urtarrilaren 21ean, Udal Mediatekan, arratsaldeko 17:30ean.

DURANGO

- » **Matias Tarraga. Helduentzako ipuin kontalaria**. Hilaren 22an, Liburutegian.



- » **Bakarritzeta Marianogaz**. Urtarrilaren 15ean, 23:30ean, Misarbe tabernan.

IURRETA

- » **Maite Franko ipuin kontalaria**, hilaren 15ean, Liburutegian, 17:30ean (3-4 urte bitartekoentzat) eta 18:00etan (5 urtetik gorakoentzat).

JAIK

BERRIZ

San Antonio jaiak

- » **Sagardotegi Ibiltaria**. Olakueta plazan hasita. Jarraian, **odoloste jana**. Urtarrilaren 15ean, 19:30ean.
- » **Bertso emanaldia, balkoitik balkoira**. Miren Amuriza, Gorka Lazkano eta Iratxe Ibarragaz. Urtarrilaren 15ean, 21:30ean, Olakueta plazan.

- » **"Hipo eta Tomas" pailazoak**. Urtarrilaren 16an, 17:00etan, Olakueta plazan.

- » **San Antonioko IV. Pilota Txapelketako finalak**. Urtarrilaren 16an, 18:00etan

- » **Musika. Bentzaharreko mutil alaiak kantujiran**. Olakueta plazan, 19:30ean.

- » **Donien atxa altzatzea**. Olakueta plazan, 19:30ean.

- » **Rock kontzertua**: Brankan, Kokein eta Norman. Urtarrilaren 16an, 23:00etan, Olakueta plazan.



- » **Berrizko Txirrindulari Taldearen martxa**. Urtarrilaren 17an, 10:00etan, Olakueta plazatik irtenda.

- » **Eskualdeko XXIX. Barazki eta fruitu erakusketa**. Urtarrilaren 17an, 11:00etan, Probalekuan.

- » **Artisau Txokoa**. Pilotalekuan, egun osoan.

- » **Bildots dastaketa**. Urriaga plazan, 12:00etan.

- » **Iremiñe dantza taldearen emanaldia**. Olakueta plazan, 12:30ean.

- » **Erromeria Trakets taldeagaz**. Olakueta plazan, 17:30ean.

- » **Kontzertua: Iñaki Salvador piano jotzaileagaz**: "Te doy una canción". Urtarrilaren 17an, 19:30ean, Kultur Etxean

- » **Barrakak**. Doan. Urtarrilaren 18an, 16:30etik 18:30era.

- » **Askaria eta herri kirolak**. Urtarrilaren 18an, pilotalekuan, 19:00etan.

- » **Olaketarren afaria**. Urtarrilaren 18an, 21:00etan.

IURRETA

Bakixako jaiak

- » **Donien Atxaren jasoera**. Urtarrilaren 15ean, 21:00etan.
- » **Tiro txapelketa**. Urtarrilaren 16an, 11:30ean.



» **Bakailao txapelketa.** Urtarrilaren 16an, 21:00etan aurkeztuko dira prestatutako platerak.



- » **Kalejira.** Urtarrilaren 17an, 10:00etan.
- » **Briska txapelketa.** Urtarrilaren 17an, 17:00etan.
- » **Maiztegi H.E. dantza taldea.** Ondoren, ume jolasak eta txokolatada. Urtarrilaren 17an, 17:30ean.



LEHIAKETA

BERRIZ

» “**Emakumeen Nazioarteko Eguneko II. Kartel Lehiaketa.** Gaia: sexualitatea. Lanak otsailaren 16a baino lehen aurkeztu beharko dira Berrizko Udal Erregistroan. Saria: 300 euro. DBHko ikasleen artean be zabalduko da lehiaketa. Kategoria horretako saria argazki kamera digital bat izango da.



ERMUA

» **Ihauterietako kartel lehiaketa.** Kartelak aurkezteko azken eguna: urtarrilaren 28a. Udaletxeko Abiapuntu bulegoan batuko dira lanak. Irabazlearentzako saria: 450 euro.



MUSIKA

DURANGO

» **Ekon+Ekonfest. Ekon taldearen azken kontzertua,** urtarrilaren 16an, 19:00etan, Plateruenean.

ELORRIO

» **Krass eta Trastorno taldeen kontzertuak,** urtarrilaren 16an, 23:00etan, Gaztetxean.

ZORNOTZA

» **Gaby Jogeix gitarristaren kontzertua.** Jazz eta blues zirukuitoaren barruan. Urtarrilaren 21ean, 20:30ean, Zelaietan.

ZINEKLUBA

DURANGO

» **‘Celda 211’**, urtarrilaren 21ean, 20:30ean, Zugaza zineman.



ERMUA

» **‘Despedidas’**, Japoniako zinearen zikloa. Hilaren 21ean, 19:00etan eta 21:30ean, Lobiano kultur etxean.



Urtarrilaren 16an, 19:00etan

EKON-EN AGURREAN
HAINBAT TALDEK JOKO
DABE PLATERUENEAN

Orain dela bost urte agur egin eta gero, Ekon talde arrasatearra berrir batu zan iaz Hatorbxu Rock-en emonaldia emoteko. Azken bira bat hasi eban orduan, eta zapatu honetan emongo dau azken kontzertua, Durangoko Plateruenean. Ekonfest izena jarri deusie izena kontzertu bereziari. Izan be, Ekonegaz batera, taldekideei gustatzen jaken musika egiten daben eta urteotan taldearen lagun izan diren hainbat talde batuko dira: Anger, Sharon Stoner, Estricalla, Eraso! eta Sexty Sexers.

ZINEMA

DURANGO

Zugaza

La decision de Anne

Zuzendaria:

Nick

Cassavetes

barikua 15:

19:00

zapatua 16:

20:00 / 22:30

domeka 17:

20:00 / 22:30

astelehena 18: 19:00 /

22:00

martitzena 19: 20:00

Avatar (3D) Zuzendaria:

James Cameron

barikua 15: 22:00

zapatua 16: 16:30

domeka 17: 16:30



ELORRIO

Arriola antzokia

Buscando a Eric

Zuzendaria:

Ken Loach

zapatua 16:

22:30

domeka 17:

20:00

astelehena 18:

20:00



Umeendako zinema

Kika super bruja y el libro de los hechizos

domeka 17: 17:00

ZORNOTZA

Zornotza aretoa

El erizo

Zuzendaria:

Mona Achache

zapatua 16:

22:30

domeka 17:

20:00

astelehena 18:

20:00



Umeendako zinema

Lluvia de albondigas

domeka 17: 17:30

BOTIKAK

Barikua, 15
09:00-09:00
• Ekebarria (Montebideo 2 - Durango)
Zapatua, 16
09:00-09:00
• Balenciaga (Ezkurdi 8 - Durango)
09:00-13:30 (*14:00)
• Campillo / San Roma / De Diego / Sagastizabal / Unamunzaga (Durango)
• Bartolome (Gabiola 2 - Berriz)
• Larrañaga (Berrio Otxoa 6 - Elorrio)
• Irigoien
(Bixente Kapanaga 3 - Iurreta)*
Domeka, 17
09:00-09:00
• SanRoma (Uribarri 5 - Durango)
09:00-22:00
• Eguren, Isabel
(Torresolo 4 - Abadiño)
Astelehena, 18
09:00-09:00
• Ekebarria (Montebideo 2 - Durango)
Martitzena, 19
09:00-09:00
• Gaztelumendi (F.J. Abasolo 2 - Durango)
09:00-22:00
• Lopez de Aretxaga
(Torresolo, nº 4-Abadiño)
Eguaztena, 20
09:00-09:00
• Mugica (Andra Mari 9 - Durango)
Eguena, 21
09:00-09:00
• De Diego (Intxaurren 22 - Durango)

TELEFONO INTERESGARRIAK

SOS Deiak.....112
DYA94 620 28 00
Gurutze Gorria94 681 09 49
Osakidetza94 600 72 00
Ertzaintza94 466 93 00
Suhiltzaileak112
GARRAIOAK
Euskotren.....902 54 32 10
Durango94 681 02 32
Bizkaibus94 448 40 80
Pesa902 10 12 10
Continental Auto945 286 466
TAXIAK
Abadiño946 814 470
Matiena606 459 988
Durango Geltokia.....946 811 001
Goco Tour.....946 202 860
Tele Taxi944 102 121
Radio Taxi Bizkaia ..944 269 026
Elorrio Geltokia946 820 040
J.L. Uriarte670 402 002
I. Estebez670 678 273
M Galeano.....946 582 854
Iurreta946 201 565
Taxi auzunea688 618 690

UDALAK

Abadiño94 621 55 30
Atxondo94 682 10 09
Berriz94 682 45 84
Durango94 603 00 00
Elorrio94 658 27 12
Garai94 681 63 93
Iurreta94 620 12 00
Izurtza94 681 35 48
Mallabia943 17 14 61
Mañaria94 681 89 98
Otxandio945 45 00 20
Zaldibar94 682 70 16

UDALTZAINGOA

Abadiño94 621 55 33
Berriz94 682 40 36
Durango94 603 00 10
Elorrio94 682 02 18
Iurreta94 620 08 88

BESTELAKOAK

Arriola94 658 31 92
San Agustin94 603 00 21
Zornotza Aretoa94 630 01 68
Gazte informazioa 94 603 00 30

Txanporta KE94 620 36 47
Errota KE94 466 94 16
Gorabide94 681 24 35
Alkoholiko Anonim.94 415 07 51
Nekazal bulegoa94 681 15 20
Uren Partzuergoa ..94 681 74 86
Butanoa (UME).....94 681 08 77
Araztegia94 620 28 00
Foru Ogasuna.....94 681 07 42
INEM Durango94 681 12 96
Gizarte Segurantz 94 681 49 58
Epaitegiak.....94 603 00 51

KIROLDEGIAK

Igerilekua
Astola94 620 29 29
Igerilekua
Atxondo94 623 14 38
Berriz94 682 43 74
Durango
(Landako).....94 621 51 30
Durango
(Tabira)94 621 51 50
Elorrio94 682 10 27
Zaldibar94 682 73 74

EGURALDIA

13° BARIKUA



Zeru goibelagaz eta giro bustiagaz argituko da eguna. Arratsalderako aroak hobera egingo dau eta ostarteak nagusituko dira. Haizea ahul eta aldakor ibiliko da, hego ukituagaz.

16° ZAPATUA



Goizaldean eta goizeko lehen orduetan, hodeitza saretuta agertuko da. Arratsaldean zerua estaliz joango da, eta euritara egingo dau, baina hego ukituko haizeak joko dauenez, ez dau gehiegi botako.

13° DOMEKA



9° ASTELEHENA



14° MARTITZENA



www.tokikom.com

Joan den abenduaz geroztik. Euskal Herriko herriz herriko aldizkari eta egunkari irakurrienek webgune berri bat sortu dute: www.tokikom.com. Topagunea euskara elkarten federazioko kide diren hedabideak dira, urteetako esperientzia eta lanari esker, bakoitza bere eremuan lider izatera iritsi direnak. Tartean, Anboto Komunikabideak dago.

Herriz herriko hedabide irakurrienak, Interneten, webgune bakarrean

Guztira 20 hedabidek, aldizkariak eta egunkariak, sortu dute www.tokikom.comi. Herri edo eskualdeetako hedabideak dira, eta denen artean, 220.000 irakurle dituzte.

Tokian tokiko 20 hedabide irakurrienek, bat egin, eta interneten orrialde berria sortu dute, www.tokikom.com. Web orrialde horretan, irakurleak herriz herriko informazioa irakurriko du; informazio osoa eta momentukoa, herri horietako aldizkari eta egunkariak ematen dutena.

Web orrialde berri hau sortu dutenak dira, Tokikom taldea osatzen duten hedabideak (tartean, Anboto Komunikabideak). Denak euskerazko hedabideak dira, eta Topagunea euskara elkarten federazioko kide dira guztiak.

20 hedabide, ezaugarri berdinak

Tokikom.com 20 hedabideren artean sortu dute, eta laster gehiago izatea espero dute, Topaguneako hedabide guztiak ez baitaude, oraindik, orrialde honetan.

Aldizkari eta egunkari hauek badituzte ezaugarri jakin batzuk: informazio lokala edo bailarakoa eskaintzen dute, euskaraz, modu errazean, eta berak dira irakurrienak, norbere eremuan. Irakurle gehienek onarpena dute, herrian erabat txertatuak daude, eta hala diote azken urteetan egin diren azterketa guztiek (Aztiker, Ikertalde, CIES...).

Alderdi eta erakundeek babesa daukate, informazio erabat plurala eskaintzen dutelako, eta euskerazko hedabideak izanagatik, erdal komunitateak ere irakurtzen du (zenbait etxetan sartzen den euskerazko produktu bakarra dira, hedabideak).

Hedabide hauen ezaugarri komunak:

informazio lokala eskaintzen dute, euskaraz, modu errazean, eta eurak dira irakurrienak norbere eremuan

Unean uneko herrietako informazioa

Tokikom web guneak, herriz-herriko informazioa du oinarri. Hedabideek euren web orrialdeetan publikatzen dituzten albisteak, momentu berean argiratuko dira www.tokikom.com helbidean. Horrela, web orrialdera sartzen den irakurleak, berari interesatzen zaion herri edo eskualdeko informazio eguneratua izango du, eskuragai.

Tokikom.com, beste webguneetan

Tokikom web orrialdean argitaratzen den guztiak, bestalde, tokian-tokiko hedabideen web orrialdeetan ere bere lekua izango du. Horretarako, hedabide horiek web orrian atal bat izango dute, Tokikom.com izeneko, eta bertan, automatikoki eguneratuko da Tokikom.com-eko informazioa.

Publizitate eskaintza bateratua, 220.000 irakurleko merkatua

Tokikomeko aldizkari eta egunkariak publizitate merkatu haundia daukate, eta euren tokian tokiko informazioa, tarifak, eta baldintzak, web orrialde berrian izango dituzte, bezeroaren eskura.

Horrez gain, publizitate eskaintza bateratua ere eskainiko da. Guztira 220.000 irakurle dituzte hedabideok, oso interesgarria eta eraginkorra izan daitekeen merkatua, herri edo eskualde jakin batetik urrunago iritsi nahi duen edozein bezeroarentzat.

Komunikabideak ezagutu

Tokikom.com helbidera sartzen denak aukera dauka hedabide bakoitzari buruzko informazioa lortzeko. Horretarako nahikoa du, berak nahi duen herri edo eskualdearen gainean klik egitea, eta hedabideari buruzko informazioa jasoko du: datuak, kontaktuak, harremana...

Honakoak dira Tokikom osatzen duten aldizkari eta egunkariak:

- ...Eta Kitto! (Eibar)
- Aikor (Txorierrri)
- Aiurri Astekaria (Beterri-Buruntza)
- Aiurri hamaboskaria (Beterri-Aiztondo)
- Anboto (Durangaldea)
- Asteleheneko Goienkaria (Debagoiena)
- Barren (Elgoibar)
- Begitu (Arratia)
- Berton (Mahatserria)
- Drogeteniturrri (Ermua, Mallabia)
- Goienkaria (Debagoiena)
- Guaixe (Sakana)
- Hernaniko Kronika (Hernani)
- Karkara (Aia, Orio)
- Otamotz (Urretxu-Zumarraga)
- Pil-Pilean (Soraluze)
- Prest (Deustualdea)
- Ttipi-Ttapa (Baztan-Bidasoa-Malerreka)
- Txintxarri (Lasarte-Oria)
- UK (Uribe Kosta).



KIROLAK >



Argazkia: Kepa Aginako

Lan erdietan, denak irabazi ditu Abadiñok

Joan zen larunbatean Abadiñoko probalekuan jokatu zuten 680 kilora arteko txapelketa etxeko taldeak, Abadiñok, irabazi zuen.

Abadiñok tiraldi guztiak irabazi zituen. Bigarren Amaiur geratu zen eta hirugarren Auzolan. Hiru talde horiek bakarrik parte hartu zuten txapelketan. Edu Mendizabal Abadiño sokati-

ra taldeko entrenatzailea pozik dago garaipenarekin, baina txapelketa "deskafeinatu samarra" izan zela onartu du: "Hiru talde bakarrik egotera, txapelketak ez zuen beste aldi batzuetako ikus-kizunik eskaini".

Bihar 600 kilora arteko txapelketako lehenengo jardunaldia jokatu dute, Abadiñoko probalekuan, 17:00etatik aurre-

ra. Abadiñok talde bi izango ditu lehian. Gainerako bost taldeak honako hauek dira: Amaiur, Berriozar, Sokarri, Barrundia eta Napurrak. Txapela joan zen asteburukoa baino garestiago dago pisu horretan, baina Abadiño da faborito. Bigarren jardunaldia Lakuntzan (Nafarroa) jokatu dute eta finala, berri, Aramaion, hilaren 30ean.

Hirutik hiru irabazi dituzte; 600, 640 eta 560koak falta zaizkie orain

Abadiñok aurten ere ezin hobeto ekin dio goma gaineko txapelketari. Lehenengo 320 eta 300 kilora arteko txapelketak irabazi zituzten —lau lagunek osatutako taldeak— eta orain 680koa poltsikoratu dute. Beraz, orain arte jokoan izan diren hiru txapelak bereganatu dituzte abadiñarrek.

Emakumeen liga

600 kilora arteko sailkapen faseaz gainera, Emakumeen Ligako (540 kilora artekoa) lehenengo jardunaldia ere jokatu dute lau taldek: Sakana, Beti Gazte, Ibarra eta Baraioitzek. Sakana eta Ibarra aurten sortu diren taldeak dira. Hiru jardunalditan erabakiko dute txapelduna. Ondoren, beste hiru jardunalditan 500 kilora artekoa erabakiko dute. ■ J.D.

24 Tabirako goikoekin lehian sartu da

Azken bost partiduetatik lau irabazita, igoera fasea zail izatetik borroka betean sartzera pasatu dira. Bihar Seky.es arerio zuzenaren kontra jokatu dute.

25 Lehen derbia areto-futboleant

Kurutziaga Ikastolak eta Durangoko Kulturalak derbia jokatu dute areto-futboleant. Kurutziaga iaz sortu zuten; beraz, biharkoa dute elkarren kontrako lehen neurketa.



Igoera fasea jokatzea jarri zuten helburu liga hasieran. Ana Dominguez

Tabirakok gora egin du inoizko maila parekatuenean

Sei talde garaipen bakarraren barruan daude; tartean, Tabirako

Igoera fasea oso garesti dago gizonen Lehen Mailan. Orain arteko hamabi jardunaldietan goitik Bidegintza bakarrik nabarmendu da (bederatzi garaipen eta porrot bi). Ondoren, sei taldeko multzoa dago, garaipen bakarraren barruan. Seky.es, Padura eta San Ignacio zazpi garaipen dituzte eta Zornotzak, Tabirakok eta Baskoniak sei. Beraz, durangarrek liga kaskar hasi ondoren, gora egin dute nabarmen.

Azken bost partiduetatik lau irabazi ditu Tomas de Castrok zuzentzen duen taldeak. Legarzia, Padura eta Easoren aurkako garaipenekin hasi zuten bolada ona Bidegintzaren kontrako porrotak hautsi zuen. Joan zen asteburuan, orde, Zornotzaren kontrako partidu zirraragarrian, garaipenaren bidera itzuli ziren

eta igoera fasea, denboraldi hasierako helburua, geroago eta hurrago dute.

Aspaldiko lehiarik estuena jokatu zuten Tabirakok eta Zornotzak. Bolada onean zeuden talde biren arteko lehia izan zen. Tabirakorena aipatu dugu, baina Unai Zamalloaren gizonak ere erreskan lau garaipen lortuta zetozen. Luzapena behar izan zuten irabazlea erabakitzeko (77-75). Horrela, Durangoko taldeak harrapatu egin du sailkapenean Zornotzakoa.

Asteburuan beste lehia zuzen bat jokatu dute, Seky.es-en kontra. Garaipen batekin berdindu egingo litzukete sailkapenean. Ez da lehia zuzen bakarra izango. Zornotzak Padura hartuko du, eta Baskoniak San Ignacio. ■ J.D.

Berasaluze eta Capero, txapela berritu nahian

Bihar, 18:00etan, IV. San Anton Pilota Txapelketako finalak jokatu dituzte Berrizen. Iazko protagonista berak izango dira kantxan: Berasaluze VII.ak eta Capero Milikuaren eta Benitoren aurka jokatu dute. Iaz Berasaluzek eta Juan Pedro Lejarreta "Capero"-k irabazi zuten, eta aurten txapela berritzen ahaleginduko dira.

Iaz ikusmin handia sortu zuen Capero, 57 urterekin finalera iritsi zelako; aurten berriro finalera iritsita, iazkoa ez zela

kasualitatea izan erakutsi du berriztarak.

Aurretik bigarren mailako finalak jokatu dituzte Zaldua-Ruti eta Imanol-Urbe bikoteek. Lautik hiru (Ruti, Imanol eta Uribe) koadrilakoak dira, eta hor ere ez da gerrarik faltako.

Finalen ondoren afaria dute Toki-Ona jatetxean txapelketan ibili diren 30 bat lagunek, Berrizko Udalak ordainduta.

Jakinarazi dutenez, guztira 15 bikote aritu dira lehiari, eta 60 neurketa jokatu dira. ■ J.D.

Azken bost lehietatik lau irabazita, igoera postuen borrokan sartu da Tabirako

Bihar Seky.es arerio zuzenaren kontra ariko dira; harrapatu egingo dituzte irabaziz gero

Gotzon Gomez •
Errugbi entrenatzailea



Errugbiaren sorrera

Koadrilako afari batean galdetu eustan lagun batek: "Gotzon, errugbia zelan sortu zen?". Ezustean hartu ninduen, eta ez nengoela seguru eta hurrengo afarian erantzungo neutsala esan behar.

Interneten begiratu dot. XIX. mendean Ingalaterrako ikastetxe pribatuetan 'football' izeneko kirola jokaten zen, baina ez zen oso kirol zehatza; herri bakotzak bere arauak zituen eta leku batzuetan osti-koak ematea, gerritik ebatzea... onartuta zegoen.

Ohiturak dinonez, 1823an, Rugby izeneko ikastetxeko ikasle batek, William Webb Ellis-ek, holako football partidu batean, pilota eskuetan hartu eta zelaia korrika zeharkatu ondoren marraren ostean itzi eban, gola lortuz. Aditu batzuk gertaera hau zalantzan jartzen daben arren, International Rugby Boardek ofizialki hartzen dau errugbi modernoaren sorreratzat.

Kirol honen lehen arauak 1845ean zehaztu zituen William Delafield Arnold, W.W. Shirley eta Frederick Hutchins ikasleek, oinarritzko 37 arauarekin. Sasoi haretan errugbi eta footballaren arteko mugak ez zegoen argi.

1863. urtean hainbat ikastetxetako ordezkariak bildu ziren Londresen, arauak batzeko. Azkenean talde bi sortu ziren, football eta rugby kirolen ibilbideak banatuz. 1871. urtean errugbiaren lehen araudia idatzi eta urte berean nazioarteko lehen partidua jokatu zen Edinburgon, Eskozia eta Ingalaterraren artean.

Geroztik gauzak asko aldatu dira, baina, itxuraz, futbolak eta errugbiak ia sorrera bera izan eben.

Murgoitio hirugarren Espainiako Txapelketan

Lasterketa apurtzen saiatu baina ez zuen lortu; azkenean, Ruiz de Larrinaga irabazle

Laredon jokaturako Espainiako Ziklo Kros Txapelketan Javier Ruiz de Larrinagak jantzi zuen txapela, eta Egoitz Murgoitio abadiñarra hirugarren postuan sailkatu zen. Jose Antoni Hermidak osatu zuen podiuma.

Lehenengo itzulia amaitu eta lasterrera, ihes egin zuten podiuma osatuko zuten protagonistek. Murgoitio lasterketa hausten saiatu zen, baina ez zuen lortu. Azkeneko ahalegi-

nean, Larrinaga izan zen indartsuena. Iñaki Lejarreta (Orbea) berriztarra 24. postuan geratu zen, eta Xabier Garcia (Elorrio Tx. Elk.) elorriarra, berriz, 31. tokian.

Bestalde, Peio Goikoetxea (Cons. Baltar) ermuarrak zilarrezko domina lortu zuen gazte mailan, eta Bizkaia-Durango taldeko Amaia Martiodak bronzeko domina eskuratu zuen 23 urtez azpikoetan. ■ J.D.

SAILKAPENAK >

Futbola / 3. maila / 4. taldea / gizonak		Saskibaloia / 1. maila / Euskadi / gizonak		Saskibaloia / 1. maila / Euskadi / emakumeak	
1- Amorebieta.....	39	1- Bidegintza.....	9 (+60)	1- Bera Bera	13 (+241)
2- Zamudio.....	37	2- Seky.es	7 (+26)	2- Ardoi	11 (+259)
3- Beasain.....	36	3- Padura	7 (+44)	3- Gemika	10 (+167)
4- Real Sociedad B...	35	4- San Ignacio UPNA.	7 (-15)	4- Las Gaunas ..	9 (+22)
5- Gemika.....	35	5- Zornotza.....	6 (+33)	5- Cafés Aitona ..	8 (+37)
6- Kulturala.....	34	6- Tabirako	6 (+11)	6- Deusto-Loiola ..	8 (+33)
7- Portugalete.....	33	7- Baskonia.....	6 (+27)	7- Arabako EHU ..	7 (+4)
8- Amurrio.....	33	8- Easo	5 (-3)	8- Elexalde	7 (-9)
9- Baskonia.....	32	9- Bide Bide.....	3 (-88)	9- Tabirako	7 (+86)
10- Arenas	28	10- Legarzia	3 (-95)	10- Obenasa	7 (-65)
11- Elgoibar.....	28			11- Abaroa	6 (+53)
12- Leioa.....	27			12- Atletico SN ..	5 (-29)
13- Santurtzi.....	26			13- Getxo	5 (-92)
14- Aretxabaleta.....	26			14- Artieda	3 (-154)
				15- San Ignacio ..	2 (-247)
				16- Irlandesas ..	0 (-306)



Tabirakoren emakumeen taldearen partidua bertan behera geratu zen

Lehenengoz, emakumezkoen derbia izango dugu areto-futbolean

Kurutziaga talde sortu berria eta Durangoko Kulturala estreinakoz aurrez aurre aurkituko dira bihar; talde biak goiko postuen lehian dabilta, eta ez dago favorito argirik

Landako kiroldegiak lehenengoz hartuko du, bihar, emakumezko talde durangar biren arteko derbia. Aurten sortu duten Kurutziaga Ikastola eta Durangoko Kulturala lehiatuko dira, 16:45etik aurrera. Taldeen izenei eta jatorriari dagokienez derbi nobedoso den arren, bateko zein besteko jokalariek elkar ondo ezagutzen dute. Izan ere, Kurutziagako jokalariek iaz arte Zornotzako Beti Arinen ibili ziren, eta sarritan jokatu dute Kulturalaren kontra. Beraz, derbi berriak aspal-diko ezagunak bilduko ditu.

Orain Kurutziaga taldea osatzen duten emakumeak talderik gabe aurkitu ziren iazko denboraldi amaieran. Beti Arinen gizonezko taldea desagertu eta egoera ekonomikoa jasanezina izatera iritsi zenean, taldea desegitea erabaki zuten. Ondoren, beste eskaintzaren bati ezetz esanda, Kurutziaga Ikastola areto-futbol taldearen proposamenak konbentzitu zituen.

Behin tramiteak beteta, taldea handitzeari ekin zioten, baina jokalar berriak lortzeko ahal-eginak ez zuen arrakastarik izan. Orain zazpi jokalarik osatzen dute taldea, eta justu antzean dabilta. "Joan zen aste-buruko neurketan bost jokalar batu ginen, eta Gabon aurrekoen sei", gogoratu du Joana Gerrikabeitia taldeko atezainak. Denboraldi hasieran kalek kale ipinitako kartelek ez dute eraginik izan: "Emakumeak ez dira areto-futbolera animatzen. Nahiago dute futbola", penatzen da Kurutziagako jokalaria.

Errendimendu handia

Ordezkoen aulkia ia hutsik izaten badute ere, astea joan astea etorri, kantxaratzaren direnek errendimendu handia eskaini dute. Saillapenean hirugarren daude, Kulturalarekin berdinduta —partidu bat gehiago jokatu dute—, eta Getxo Kantxa liderrarengandik lau puntura. Etxetik kanpora jokaturako zazpi parti-



Kurutziaga bigarren talderik golegileena da, Getxoren atzetik; 59 sartu dituzte.

duak irabazi dituzte, eta etxean galdutako biak lehenengo bi saillatuen kontrakoak izan dira: "Geuk ere ez genuen hain goian ibiltzerik itxaroten. Behean ere ez, baina erdi inguruan mugitu-ko ginela uste genuen".

Kulturala sortu zela joan dira urte batzuk, eta taldea goiko postuen borrokan ibiltzen ohituta dago. Iaz Bizkaiko Kopako finala ere jokatu zuten, eta azpitxapeldun geratu ziren. Dena dela, iazko taldeak zerikusi gutxi du aurtengoarekin. Taldea eraberritu dute, eta belau-naldi aldaketa eman da. "Jokalaria erdiek taldea utzi dute. Horiek urte asko zeramatzen, areto futboleaz ez bazen futboleaz, eta apur bat nekatuta zeuden". Askok joan dira eta gutxi etorri; fitxa berri bi bakarrik egin dituzte, baina hala ere talde nahiko trinkoa dela azaldu digute; ez dabiltzala Kurutziaga bezain hankamotz. Taldeko aurtengo

Kurutziagan diharduten jokalariek Zornotzako Beti Arinetik datoz

Derbi orekatua eta borrokatua aurreikusit dute talde bietako jokalariek

nobedade nagusia entrenatzailerik bilatu dutela da: "Iaz ez genuen entrenatzailerik. Entrenamendu guztiak antzekoak ziren, apur bat aspergarriak. Orain, esperientzia handiko entrenatzailea dugu, eta entrenamenduak askoz aberatsagoak dira. Horregatik, oso pozik gaude", azaldu digu Nerea Lersundi jokalaria.

Derbi parekatua

Bihar zer gertatutako den aurreikustea ez da batere erraza. Talde biak sasoian daude. Gerrikabeitiak hiru puntuak alde batera zein bestera joan daitezkeela uste du: "Ez dakit emaitza zein izango den, baina lehia parekatua izango dela uste dut". Uste berekoa da Lersundi ere: "Elkarren kontrako partidua gogorak eta borrokatuak izan ohi dira, eta biharkoa ere hala-koa aurreikusten dut".

Kurutziagaren datuak bezain azpimarragarriak dira Kulturalarenak; Getxoren kontrako ez beste partidua guztiak irabazi ditu. Maila horretan, alde handia dago lehen lau taldeen eta gainerakoan artean. Zorionez, gure taldeak aukeratuen multzoan dabilta. Zaila izanagatik, Getxoren hegemonia haus-ten saiatuko dira aurten. ■ J.D.

Talde biak ligako indartsuenak dira Getxo eta Stilo Berriogaz batera



Durangoko Kulturalak derbia irabazten badu, Getxorengandik puntu bakarrera jarriko da. A.D.

Agenda

FUTBOLA

HIRUGARREN MAILA

Kulturala - Zaila

Zapatuan, 17:00etan,

Tabiran

LEHEN ERREGIONALA

(gizonak)

Iurretako -

Gazteluzarra

Zapatuan, 18:00etan,

Larrakozelain

Zaldia - Apurtuarte B

Zapatuan, 16:30ean,

Solobarrian

Elorrio - Baklo

Zapatuan, 16:00etan,

Eleizalden

BIGARREN ERREGIONALA

(emakumeak)

Elorrio - Enkarterri

Domekan, 12:00etan,

Eleizalden

ARETO FUTBOLA

NAZIONAL A MAILA

Sasikoa - Zalatambor

Domekan, 12:00etan,

Landako kiroldegian

NAZIONAL B MAILA

Elorrioko - La Bellota

Zapatuan, 16:45ean,

Elorrioko udal kiroldegian

EUSKAL LIGA

Sasikoa - Armentia

Zapatuan, 19:15ean,

Landako kiroldegian

GOREN MAILA

Mallabia - Mamarigako

Domekan, 17:30ean,

Zaldibarko kiroldegian

LEHEN ERREGIONALA

Presion Break -

Atxure Baklo

Zapatuan, 17:00etan,

Berrizburun

BIGARREN ERREGIONALA

Gu Lagunak -

Kurutziaga B

Zapatuan, 18:00etan,

Landako kiroldegian

Dantxari - Usansolo

Zapatuan, 18:15ean, Iurretako

Lanbide Heziketa Institutuan

Mendibeltz - Ibaibide

Zapatuan, 15:30ean,

Landako kiroldegian

SASKIBALOA

LEHEN ERREGIONALA

(gizonak)

Zaldia - Rover

Zapatuan, 18:30ean,

Zaldibarko kiroldegian

LEHEN ERREGIONALA

(emakumeak)

Tabirako - Begoñazpi

Zapatuan, 19:00etan,

Landako kiroldegian

BIGARREN ERREGIONALA

Zaldia - Otxarkoaga

Zapatuan, 16:30ean,

Zaldibarko kiroldegian

EUSKADIKO

URREZKO KOPA

Durango Ilarduya -

Elbar

Domekan, 12:00etan,

Arripausuetan

XAKEA-

EUSKAL HERRIKO LIGA:

Euskal Liga B

Abadiño - Leloa

Zapatuan, 16:00etan,

Matienako lokalean

Bizkaiko Lehen Maila

Larrasoloeta - Zornotza

Zapatuan, 16:00etan,

Durangoko lokalean

Bizkaiko Bigarren Maila

Zaldi Baitza B -

Larrasoloeta

Zapatuan, 16:00etan,

Elorrian

MENDIA

ALPINO MENDIZALE

TALDEA

Aurten 25. aldia beteko du eski trabesiak. Aurten Tenako harana aukeratu dute, eta Sabiñanigoko Pirenarium aterpetxean hartuko dute ostatu. Eguna: **otsailak 28**. Izena emateko azken eguna: **otsailak 11**, Alpinok Goienkalen duen egoitzan, **astearte** eta **ostegunetan** 20:00etatik 21:00etara. Tel: 94 620 31 53

AMALURRA[>]

Mancomunidad de la Merindad
de Durango
Durangoko Merinaldearen
Amankomunazgoa



50.000 jostailu baino gehiago batu ditue 2009an, %67 berreskuratuz

Helburu ekologikoa eta soziala daukan ekimen iraunkorra planteatzen dabe Aldundiak eta Rezikletak

Joan den urtean batutako 50.458 jostailuen %35 berriro erabili ahal izan dabe, eta %32 birziklatu dabe

Aldundia eta Rezikletaren kanpaina iraunkorrari esker, ia 19 tona jostailu bildu ditue joan den urtean zehar

Joan dira Gabonak, eta segurik etxe askotan ez da erraza izango jostailuentzako tokia aurkitzea. Urtez urte erosi ohi dira umeentzat jostailuok, eta azkenean trastelekuetan edo armairuetan pilatzen dira, beste ume batzuk horreen beharrea dagozenez. Gainera, zakarretara botaz gero, horreetako asko kutsagarriak be izan leitezke. Baina badago arazoari irtenbidea emoten deusan aukerarik: birziklatzea. Helburu ekologikoa eta soziala daukan ekimen iraunkorra planteatzen dabe Bizkaiko Foru Aldundiak eta Rezikleta Gizarte ekimeneko kooperatibak.

2009ko datuen arabera, martxan jarritako kanpaina 50.458 jostailu bildu dira. Zifra hori kontuan hartuz, ia 19 tona jostailu jaso ditueela azpimarratu dabe Aldundiko ordezkariak.

Horreen guztien % 35 berriro erabili ahal izan dabe, eta % 32 birziklatu dabe. Beraz, kalkulua eginda, 10 jostailutik ia 7 berreskuratzea lortu dabe.

Gizarte ekonomia

Bildu eta birziklatu ondoren, banaketa dator. Joan den urtean, 10.000 neska-mutil inguruk gozatu dabe jostailuren batez, ekimen honen laguntzari esker.

Gure etxeetan sobera dautugunari irtenbide egokia emonda, "jostailuak eskuratzeko aukera emon deutsegu ohiko merkatuan jostailuak erosteko zailtasunak edo ezina daukien pertsonen eta, era berean, gizarte ekonomia sustatu dogu", Aldunditik bidalitako prentsa oharrean aipatzen denez. Ikuspegi ekologikotik, "jostailuak biltzeak hondakin gehiago berres-

kuratzea sustatzen dau" euren eritziz, eta "gure ingurunea hobetzeko oraindino zer egin badagoela ikusarazten deutse herritarrei", dinoenez. Horretaz gainera, oharrean adierazten dabenez, "onura handia dakar tso gizarteari berari".

Bazterketa gaituz

Bestalde, lan-merkatura sartzeko zailtasunak daukiezen pertsonen edo gizartearen baztertuta geratzeko arriskua daukienei lana emoteko be balio dau ekimenak, egoera horreetan dagozen pertsonak arduratzen dira eta jostailuak berreskuratzeaz.

Jostailuok, berreskuratuta dagozenez, bigarren eskuko merkatuan saltzen dira, eta gizarte-proiektuek daukiezen beharrezane erantzuteko be erabiltzen dira.



IRAGARKI TAULA

saldu, erosi, alokatu, lanean hasi, lana eskaini, ...
aurkitu bilatzen ari zarena eta iragarri nahi duzuna



ESKAINTZAK

Neska euskalduna
edozein lan mota
egiteko prest,
edozein ordutegitan.
Esperentzia la
zerbitzari bez
umeekin...

ERRENTAN EMAN

Durango. Alde
zaharreko etxe bat
alokagai. Guztiz
barriztatuta dago
eta hiru gela d
750 euro...



SALDU

Fun roller autoka-
rabana salgai.
2003 urtekoa. 54 km.
Motorra Fiat 2.8 JTD
127 zaldi. 24.
euro...

HARTU

Neska euskalduna
behar dogu 10 urte-
ko neska bati klase
partikularrak emateko (ingeles
beste irakasg
batzuk)...



BEREZIAK

Autoa konpartitzen
dut Gasteiztik
Otxandiora joateko,
astelehenetik ostegunera. 09:30
aurrera...

OPARI

Artzai-txakurrak.
Hilabete bateko
kuma oparitzen
dut. Arra da.
Oso polita.
...





e-mail: anboto@anboto.org
Tel.: 94 681 65 58

IRAGARKIAK

LANA

- Eskaerak
- Eskaintzak
- ETXEBIZITZAK**
- Salgai
- Errentan eman
- Errentan hartu
- Pisua konpartitu
- IRAKASKUNTZA**
- Klaseak hartu
- Klaseak eman
- MOTORRA**
- Salgai
- Erosi
- LOKALAK**
- Errentan eman
- Errentan hartu
- ANIMALIAK**
- Salgai
- Erosi
- BESTEAK**
- Berba egin
- Salgai



Osteguneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak ostiral horretako alean argitaratuko ditugu. Beranduago jasotakoak hurrengo alean.

DOAKO IRAGARKIAK (partikularrak):

- Bidali mezua hurrengo helbide elektronikora: anboto@anboto.org edo
- Deitu 94 681 65 58 telefonora

ORDAINDUTAKO IRAGARKIAK (ez profesionalak):

Iragarki laburretatik bereiztuta eta lauki batean nabarmenduta. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94 621 79 02 telefonoan.

argitsua. 12 urte ditu.
Tel.: 656 711 625 (Mario)

Durango. Etxea salgai Landakon, Txibitenan. Sukaldea, 3 logela, saloia, bi komun eta bi balkoi handi ditu. Seigarren solairuan. Ondo zainduta. Garaje itxiarekin. Tel.: 94 616 62 97

Elorrio. Baserri bateko etxe berriztatua alokatzen da. Estreintzeko. 3 logela, egongela, sukaldea, jangela, komuna eta atarte. 150 m2 solairu bakarrean. Tel.: 699 846 219

Abadiño. Etxebizitza salgai Muntzaratz auzoan. 3 logela, egongela handia, 2 komun, sukaldea, trasteleku txiki bi etxean eta ganbara. Berriztatua. Altzariekin, nahi izanez gero. Lokal komertziala aukeran (kotxe birentzako lekua). Tel.: 667 882 338

Pisua salgai Errioxan, Casolareinan. 20 m2-ko txokoarekin. Tel.: 615 789 859

ERRENTAN EMAN

Durango. Logela bat alokatzen da Alde Zaharrean, sukaldea erabiltzeko eskubidearekin. Tel.: 607 086 090 (Ane)

ERRENTAN HARTU

Durango. Etxebizitza bila gabiltza, berogailuarekin. Bikotea semearekin. Tel.: 637 292 465

KONPARTITU

Durango. Konpartitzeko pisu bila nabil Durango edo inguruan. Tel.: 691 354 031

MOTORRA

SALGAI

Ford Escort Turbo Diesel salgai. Balazta berriekin eta martxan ipintzeko berogailu berriekin. Amortiguadoreak ere berriak. IAT pasatu berri. 154.000 km. 2.100 eurotan. Erabilgarri dago, egoera onean. Tel.: 94 621 82 57

Nissan Micra salgai. Egoera onean eta oso merke: 950 euro. Tel.: 610 415 511

Peugeot 307 1.6 salgai. Gasolina. 2005eko azarokoa, 36.000 km-rekin. IAT 2011ra arte. Klimatizagailuarekin eta oso egoera onean. Garajea gordetako. 8.000 euro. Tel.: 677 333 167 (Iratxe)

Lan Rover Defender 2.5 TD salgai. 2001ekoa. 125.000 km. Enbrage berriarekin. Egoera onean. 9.500 euro, negoziagarri. Tel.: 696 781 189

Renault Clio 1.9 D salgai. 2000. urtekoa. 170.000 km. Kolore urdinekoa. Distribuzioa eginda. Gupil berriekin. Egoera onean. 2.500 euro. Tel.: 696 781 189

Saab 93 1.9 Tdi salgai. Beltza, familiarra. 2006ko urrikoa. Bermea 2010eko urria arte. Tel.: 660 467 729

Renault Megane Scenic Kaleido 1.9 DTi salgai. Diesela, aire girotuarekin. Irrati-kaseta CD kargadorea, aleazioko

llantak, itxiera zentralizatzailea, airbaga, ABSa, norabide laguntzailea eta kristal-jasogailu elektrikoak. Kateak eta ekipaiarako barrak opari. 3.900 euro. Tel.: 653 726 708

Kia Sportage 2.0 TDI salgai. Bola eta aurreko paratxokea barne. Beti garajea gordetako. Egoera oso onean. Tel.: 617 476 685

LOKALAK

SALGAI

Durango. Garaje itxia salgai. Alde zaharretik gertu. Prezio onean. Tel.: 665 729 936

Abadiño. Garajeko plaza bat salgai Zelaetan. Trastelekua erantsita dauka. Tel.: 695 712 520

ERRENTAN EMAN

Elorrio. Garaje bi alokagai Goieta kalean. Tel.: 657 793 993

Durango. Haizetarako garajea alokatzen dut Ibaizabal auzoan. Tel.: 94 681 89 47 edo 636 046 318

Durango. Bulego bat alokagai Plateruen plazan. 37 m2 ditu, eta jantzita dago. Dena prestatuta. Gela handi bat eta beste bi normalak. 750 euro hilean. Tel.: 656 780 215

Durango. Garaje itxia alokagai Alde Zaharretik gertu. Tel.: 665 729 936

ANIMALIAK

SALGAI

Txakurkumeak salgai. Bost pitbull. 200 euro bakoitza (Negoziazarri). Tel.: 677 850 585

Etxeko oilaskoak saltzen dira. 2-3 kiloak. Zuriak 5 euro kilo, eta gorriak 6 euro kilo. Tel.: 655 998 402

Kanario horiak saltzen ditut. Tel.: 689 586 054

BESTEAK

SALGAI

Egongelarako altzaria salgai. Egoera oso onean. Luzera 3,34 m, altuera 2,20 m eta zabalera 40 zm. Tel.: 685 769 503

Garbigailua salgai. Berria da. Berme barruan. Erdi prezioan. Tel.: 695 728 383

Akazia taketak saltzen dira. Neurri guztietakoak eta eskuz eginda. Landa, mendi edo mahastientzako. Tel.: 619 088 233

Wii kontsola berria salgai. Wii Sports jokoa eta bigarren mandoa opari. 160 euro. Tel.: 686 425 295

Saillfish Vibrant Neoprenoa salgai. Luzea eta berria da. Gizonezkoen S neurrikoa (165-178zm, 68-78 Kg). Tel.: 665 714 783

Autorako aulkia salgai. Romer Isolix duo plus. 2 urtekoa. Berri-berria. I taldekoa (9-18 Kg). Segurtasun uhalarekin edota isofixagaz lotzeko. 175 euro. Tel.: 646 740 643

LANA

ESKAERAK

Neska bat behar da ofizial legez ileapaindegian lan egiteko. Egun osorako. Tel.: 94 655 01 05 (Elena)

Osasun arloko produktuen banaketan lan egiteko pertsona bat behar dugu. Beharrezkoa da ekimen eta komunikazio gaitasuna izatea eta gida-baimena izatea. Baloratuko da: osasun arloko formazioa, antzeko lanetan esperientzia eta trebakuntza arloko esperientzia. Bidali CVak urtarilaren 22a baino lehen hona: info.ksegur@gmail.com

Durango bizi den emakume bat behar da umea zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel.: 657 772 050

Durango. Haur zaintzailea behar da hiru ume zaintzeko (2, 6 eta 8 urtekoak) eta etxeko lanak egiteko. Derrigorra da esperientzia izatea eta Durangaldean bizitzea. Lanaldi partziala. Erreferentzia: 33. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.

Zornotza. Klinikako teknikari laguntzailea behar da nagusien erresidencia batean asteburuetan lan egiteko. Derrigorra da formazioa edo esperientzia izatea eta kotxe propioa izatea. Erreferentzia: 67. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.

Durango. Merkataritzako agentea behar da bezeroak lortu eta harremanetarako. Derrigorra da esperientzia izatea komertzial moduan eta Durangaldean bizitzea. Erreferentzia: 128. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.

Durango. Merkataritza agentea behar da aseguru informazioa eta salmentarako. Derrigorra da heziketa ertaina izatea, ordutegi malgua izatea eta Durangaldean bizitzea. Erreferentzia: 6.455. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.

Durangaldea. Bilboko enpresa batek aseguru merkataria behar du bezeroak lortu eta mantentzeko, baita ordezkaritzarako ere. Derrigorra da 28-50 adin tartekoa izatea, diplomatura eta esperientzia izatea eta Durangaldean bizitzea. 2010eko urtarilean hasteko, egun osoz. Erref.: 8.527. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.

Zornotza. Geriatriko erizaintza laguntzailea behar da. Derrigorra da formazioa izatea, urtebeteko esperientzia izatea eta Durangaldean bizitzea. Euskaraz jakitea baloratuko da. Egun osoko lanaldian. Erreferentzia: 8.666. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.

Zornotza. Produktzio zuzendaria behar da, garbetei batean prozesu produktiboa bermatzeko. Derrigorra da %33ko minusbalioa izatea gutxienez, eta heziketa izatea, ezagutza informatibokoak gainera. Kotxe ko karneta eta auto propioa ere eskatzen dira. Erreferentzia: 9.001. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.

Durango. Txakur bilketa zerbitzurako arduraduna behar da. Instalazioen mantenua ere bai. Derrigorra da kotxe propioa izatea, animaliak gustatzea, ordutegi malgua izatea eta Durangaldean bizitzea. Lanaldi erdia, baina astelehenetik domekarako disponibiltatearekin. Erreferentzia: 9.545. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.

ESKAITZAK

Emakume arduratsua orduka lan egiteko prest dago: umeak zein pertsona nagusiak zaintzeko, etxeak garbitzeko eta antzekoetarako. Tel.: 670 674 641

Elorrioko neska euskalduna goizetan, 11:00etara bitartean, umeak eskolara eramane edo zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest. Tel.: 600 883 213

Neska euskalduna edozein lan egiteko prest, nagusiak zaindu zein etxeko lanak egiteko, adibidez. Edozein ordutegitan. esperientzia handikoa. Tel.: 607 086 090 (Ane)

Mutil bat asteburuetan tabernan lan egiteko prest. Esperientzia daukat. Tel.: 678 313 503

Erizaina lan bila dabil. Esperientzia geriatrian eta erreferentzia askorekin. 10 urte alorrean lanean. Titulu homologatua. Beste lan batzuetarako ere prest. Tel.: 695 722 021

Neska euskalduna goizez zein arratsaldean lan egiteko prest, klase partikularra ematen edo umeak zaintzen. Kotxea daukat. Tel.: 628 406 696 (Ixone)

Argazkilari esperientziaduna ezkontza eta bestelako ekitaldietan argazkiak egiteko prest dago. Prezio onean. Tel.: 680 592 903

ETXEBIZITZAK

SALGAI

Mallabia. Baserria salgai toki polit batean. Tel.: 655 702 647

Elorrio. Pisu eder bat salgai. Auzoa etorbidean. Tel.: 639 020 581

Durango. Pisu bat salgai Madalena auzoan. Guztiz berriztatua, duela 5 urte. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Oso eguzkitsua. Guztiz jantzia. Tel.: 655 709 659

Durango. Pisua sailgai erdialdean. 80 m2 ditu. Bi logela, egongela, sukaldea, komuna eta ganbara. Oso

Bibolina salgai. 1/2 -eko neurrikoa. Funda, arkuak, resina eta ordezko sokak. Egoera onean. 40 eurotan. Tel.: 637 292 465

Telefono mugikorra salgai. LG markakoa. Kargadorearekin. Tel.: 689 847 603 (Nerea)

Berriz. Etxeko gela bi (altzariak) saltzen ditut. Tel.: 696 325 811

Mendi bizikletarako balaztak salgai. Formula 24k. Hidraulikoak. Estreinatut gabe. Adaptadoreak prezio barruan. 250 euro. Tel.: 675 008 804 (Harkaitz)

Berogailu elektrikoa salgai. 30 litrokoa. Berria da, erabili gabekoa. Tel.: 699 295 914

Arkoizozkailua salgai. Ignis ICF 271. Berria da, erabili gabekoa. Tel.: 699 295 914

Etxeko kanpaia salgai. Isla estilokoa. la-ia barria da. Pando markakoa. Altzairu herdoilgaitzekoa. Tel.: 94 622 56 73

EROSI

Iurreta. Landa bat erosi edo errentan hartzeko prest nago. Tel.: 626 156 817

Kotxerako umeen segurtasunerako aulkia (1,2,3 taldekoa) eta jaioberrien-tzako moisesa erosiko nituzke. Tel.: 650 573 607

Bikiak paseatzeko aulkitxoa erosi gura dut. Tel.: 650 573 607

BEREZIAK

Biodantza ikastaroa eskaintzen dut barikuetan Elorrioko Lurdes ikaste-txean, 19:00etatik 21:00etara. Izena emateko: Tel.: 626 661 292 (Mentxu)

Txakur portaeran aditua. Txakurrari laguntzeko bide onena. Turid Rugasen eskolakoa eta PDTE Europako elkarteko kidea. Tel.: 649 402 296 edo 649 402 290

Durango. Mendizabal auzunean txoko bat sortzeko jendea behar da. Interesatuak deitu hona: Tel.: 605 711 331 edo 630 839 325

Afrikar trentzak eta beste hainbat orrazkera egiten ditut. Galdetu arazo barik. Tel.: 676 009 302. Dikson.

Txakur hezitzailea. Eusko Jauriaritzan erregistratua. Hainbat zerbitzu eskaintzen ditut. Galdetu arazo barik. Tel.: 656 791 027

45-50 adin tarteko lagun bila nabil, arratsaldero ibilaldiak egiteko txakurrekin eta abar. Tel.: 636 847 262

Poltsikoko egutegiak badituzu, edo bildumak egiten badituzu deitu zenbaki honetara. Tel.: 665 718 061

Atxondo. Karabanak gordetzeko zerbitzua. 900 m2-ko lokala. Tel.: 618 608 908

Eskuko desbrozadorarekin garbiketak egiten ditut. Orduko kobratzen dut. Tel.: 619 552 202

Denetariko margogintza artistikoa egiten dugu. Altzarien eraldatzea, margolanen erreprodukzioa eta marrazkiak zurezko zoruetan, besteak beste. Tel.: 678 704 197

INMOBILIARIAK




Fernando Uribe
Barrenkalea, 15 - bajo - Tel. y Fax: 94 681 64 23
48200 DURANGO / Bizkaia

ETXEBIZITZA BERRIAK

- Andra-Mari: Apartamentu berriak salgai.
- Zaldibar: Etxebizitzak eraikitzen. Salgai.
- Abadiño: Txalet bifamiliarra lur eremuarekin.
- Atxondo: Adosatua lursailarekin.
- Erretentxu: Adosatuak eraikitzen. Salgai.
- Otxandion: Adosatuak. Eraikuntza berriak.

ETXEBIZITZA SALGAI

- Kalebarria: Halla, egongela, sukaldea, 3 logela eta komuna. Balkoia.
- Kalebarria: Halla, sukaldea, egongela-jangela, 2 logela eta komuna. (Guztiz berriztuta)
- Kiriño: Halla, 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna.
- Komentu kalea: Halla, egongela-jangela, sukaldea, 2 logela horma-armairuekin eta komuna. Ganbara. (Guztiz berriztuta eta erdi jantzia)
- Laubideta: Halla, sukalde-jantokia, egongela, 2 logela eta komuna. Terraza.
- Mikeldi: Halla, egongela, sukaldea, egongela eta komuna.
- Iparraguirre: Duplexa. Halla, sukaldea, egongela-jangela, 4 logela eta 2 komun. Terraza. Trastelekua eta 2 kotxerentzako garajea.
- Monago Torren: Halla, egongela-jangela, 3 logela eta 3 komun. Balkoia. Garajea eta trastelekua.
- Murueta Torre: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 3 logela eta 2 komun. Balkoia. Garajea eta ganbara.
- Plateruen Plaza: Halla, egongela, jangela, sukalde jantzia, 4 logela eta 3 komun. Garajea eta trastelekua.
- San Frantzisko: Halla, sukaldea, egongela, 3 logela eta komuna. 2 balkoi eta trastelekua.
- San Ignazio Auzunea: Halla, sukaldea, egongela-jangela, 3 logela eta 2 komun. Garajea eta trastelekua.
- San Agustinalde: Apartamentu berriak salgai.
- San Fausto: Halla, sukalde-jantokia, 2 logela eta komuna.
- Txibitena: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia eskegitokiarekin, 3 logela eta 2 komun. Ganbara eta garajea. Erdi jantzia.
- Untzillaitz: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 2 logela eta komun. Balkoia. Garajea eta trastelekua. Erdi jantzia.
- Urkiaga-Torre kalea: Halla, sukaldea, egongela, 3 logela eta komuna. Balkoia.
- Abadiño: Halla, egongela-jangela, sukaldea jantzia, 3 logela eta 2 komun. 2 garaje. Jantzia.
- Abadiño-Matiena: Halla, sukaldea, egongela, 2 logela eta komuna. Ganbara.
- Abadiño: 3 solairutako etxebizitza berriztatzeko.
- Bedia: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 3 logela eta 2 komun. Balkoia. Berrikuntzekin.
- Berriz: Halla, sukalde jantzia, egongela-jangela, 2 logela eta komuna. Balkoia. Jantzia. Garajea eta trastelekua.
- Berriz: Duplexa. Halla, sukalde jantzia, egongela-jangela, 3 logela eta 2 komun. Erdi jantzia. Garaje itxia eta Trastelekua.



ISD
Inmobiliaria del Duranguesado

Askatasun etorbidea, 10 48200 DURANGO
Tel./Faxa:94 681 66 66 inmoduranguesado@gmail.com
www.inmoduranguesado.com

ETXEBIZITZA SALGAI

- Askatasun Etorbidean: Promozio berriak. 1,2,3 eta 4 logelakoak.
 - Logela bakarra garajea eta trastelekuarekin 200.000+ BEZ
 - 2 logela garajea eta trastelekuarekin 233.000+ BEZ
 - 3 logela garajea eta trastelekuarekin 350.000+ BEZ
- Tabira: Luxuxko etxebizitza berrien promozioa. Ganbararekin.
- Pagasarri kalea: Azkeneko 3 etxebizitza salgai. Eraiki berriak. 2 eta 3 logela.
- Ezkurdi: 130 m2. 4 logela. Garajea. Handia. Orientazio ona.
- Askatasun Etorbidea: 123 m2. 4 logela. Garajea, trastelekua eta ganbara. Altuera ona. Etxe osoak kanpora ematen du. Eguzkitsua.
- Fray J. de Zumarraga: 108 m2. 4 logela. Altuera ona.
- Murueta Torre: 120 m2. 4 logela. Garajea eta trastelekua. Balkoia.
- Juan de Itziar: 4 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Bizitzen sartzeko moduan.
- Herriko Gudarien kalea: 100 m2. 3 logela. Garaje itxia. Balkoi handia.
- Askatasun Etorbidea: Erdi berria. 92 m2. 3 logela. Garajea eta trastelekua.
- Askatasun Etorbidea: Duplexa. 110 m2. 3 logela. Garajea eta trastelekua.
- Ermodo: Erdi berria. 90 m2. 3 logela. Garajea eta ganbara. Balkoia.
- Zabale: 90 m2. 3 logela. Garajea eta trastelekua. 2 balkoi. Etxe osoak kanpora ematen du.
- San Ignazio: 104 m2. 3 logela. Garajea eta ganbara. Erdi berria. Altuera ona. Etxe osoak kanpora ematen du. Eguzkitsua.
- Pagasarri kalea: 94 m2. 3 logela. Garajea eta ganbara. Erdi berria. Etxe osoak kanpora ematen du.
- Ambrosio Meabe: 108 m2. 3 logela. 2 kotxerentza-ko garaje itxia. Ganbara.
- Astarloa: 75 m2. 3 logela. Berriztatua. Igogailuarekin.
- San Frantzisko: 75 m2. 3 logela. Etxe osoak kanpora ematen du. 2 balkoi.
- Antso Estegiz: 97 m2. 3 logela. Ganbara.
- Aramotz: 70 m2. 3 logela. Berriztatua. Bizitzen sartzeko moduan.
- Murueta Torre: 90 m2. 3 logela. Garajea, trastelekua eta ganbara.
- Andra Mari: Atikoa. 2 logela. 30 m2-ko terraza.
- Fray Juan de Zumarraga: Duplexa. 2 logela. Garajea eta trastelekua.
- Laubideta: 70 m2. 2 logela. Garaje itxia. Beheko solairua lur sailarekin.
- Oniturri – Astatasun Etorbidea: Erdi berria. 2 logela. Ganbara.
- Landako etorbidea: 80 m2. 2 logela. Garajea eta ganbara. Balkoia.
- Zeharkalea: 68 m2. 2 logela, egongela, sukalde jantzia eta komuna.
- Murueta Torre (V. Bizkaia): Erdi berria. 2 logela. Garajea eta ganbara.



ETXETXO
G. INMOBILIARIA

Sabugo, 1 48200 DURANGO
Tel.: 94 681 40 49

ERAIKUNTZA BERRIAK

- Zaldibarren: 2, 3 eta logela bakarreko etxebizitzak. Etxebizitzak garajearekin eta trastelekuarekin. Guztiz jantziak. 138.000 -tik aurrera.
- Tabira: Berriak. Berehalako banaketa. 192.000 .
- Durango: ETXEBIZITZA BERRIAK SALGAI.

Terrazarekin. 1, 2, 3 eta 4 logelako etxebizitzak.

- Ermodo kalean: Eraikuntza berria. 105 m2. Etxe osoak kanpora ematen du. Ganbara, garajea eta trastelekua.

ETXEBIZITZA SALGAI

- Andra Mari: Apartamentua. Guztiz jantzia. 162.000 €
- San Fausto: 2.solairua. 143.000 €.
- Durango: Bizitzen sartzeko moduan. 2 logela eta egongela. 156.300 € (26 mill.).
- Urkiagatorre kalean: 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Trastelekua. 179.000 €.
- Aramotz: 3 logela, egongela. 202.500 €.
- Franzisko Ibarra: 90 m2. Ganbara eta garajea. 324.600 (54 mill.).
- Oniturri: 77 m2. 2 logela, egongela eta 2 komun. Ganbara. 291.500 € (48,5 mill.).
- Madalena: 90 m2. 3 logela. Eguzkitsua.
- Askatasun Etorbidea: 3 logela eta 2 komun. Ganbara. Terraza. 279.500 €.
- Murueta Torre: 90 m2. 3 logela. Ganbara, trastele- kua eta garajea. 315.500 €.
- San Ignazio: 3 logela eta 2 komun. Ganbara eta garajea. 306.500 €(51 mill.)
- Ermodo: 100 m2. 3 logela eta 2 komun. Garajea.
- Asbiki kalean: Estreinatzeko. 2 logela. Terraza. Ganbara eta garajea. Eguzkitsua.
- Pinondon (Tabira): 3 logela eta 3 komun. 2 terraza.
- Tabira / Arlulzea: Duplexa. Erdi berria. Garajea.
- Tabira: Apartamentua. 60 m2. Terraza. Ganbara.
- Plateruen Plaza: Berria. Atikoa. Terraza. 2 logela.
- Artzetagan kalean: Apartamentu berria garajea eta trastelekuarekin. Bizitzen sartzeko moduan.
- Mendizabalen: 2 logela eta 2 komun. Garaje itxia eta ganbara. Erdi berria.
- Antso Eztegiz: 3 logela eta komuna. Aukera ona.
- Durango: Txaleta. Estreinatzeko. Lorategiarekin.

IURRETA

- Uralde: 3 logela. 188.800 €.
- Zubiaurre: 3 logela. Guztiz jantzia. 210.000 €.
- Bidebarrieta: 70 m2. 3 logela. Terraza. Igogailua.
- Bixente Kapanaga: 90 m2. 3 logela eta 2 komun. Trastelekua eta garajea.
- Orozketa: Baserria. Guztiz berria. 3 solairu.

ABADIÑO

- Andra Mari: 2 logela eta 2 komun. Ganbara eta garajea. 235.600 €. (39,2 mill.)
- Feria Leku: 90 m2. 3 logela eta egongela.
- Zeletabe: 100 m2. 3 logela eta 2 komun. Garajea.
- Matiena: 3 logela eta egongela. 180.300 €.
- Matiena: Laubideta kalea. Apartamentua. Garaje aeta trasteleku handia.
- Abadiño: Txaleta. Bifamiliarra. Lursailarekin.



Amboto
San Agustinalde, 4 - 1 Edk.DURANGO
TE: 94 681 35 62 email: amboto@euskalnet.net

ETXEBIZITZA SALGAI

DURANGO

- Erdialdea: Apartamentu berriak. Logela bat edo bikoak eta sukaldea jantzita. 172.000 €-tik hasita. Lehen mailako materialak. %100eko finantzaketa.
- Apartamento berriak eraikitzen.700 € hilero.
- Askatasun Etorbidea: Eraiki berriak. 2, 3, 4 eta logela bakarrekoak.
- Alluitz: 3 logela, 2 komun, sukaldea balkoiarekin, egongela eta terraza. Garaje itxia. Estreinatzeko. Etxe osoak kanpora ematen du.
- Fray Juan de Zumarraga: 4 logela, egongela balkoiarekin, sukaldea terrazarekin eta 2 komun. Orientazio ona.
- Murueta Torre: 3 logela, 2 komun, sukaldea eskegitokiarekin eta egongela terrazarekin. Ganbara, trastelekua eta garajea. Prezio interesgarria.
- Andra Mari: 110 m2. 3 logela, komuna, egongela eta sukaldea. Leku onean.
- Durango: Eraiki berria. 2 logela, 2 komun, sukaldea eskegitokiarekin, egongela eta garaje itxia. Lehen mailako materialak.
- Tabira: Eraikuntza berria. Logela bakarreko apartamentua. Sukalde jantokia, komuna eta eskegitokia.
- San Inazio Auzunea: Berriztatu berria. 3 logela, (logela printzipala komuna eta jantzigelarekin), 2 komun, sukaldea eta egongela balkoiarekin. Aire girotua. Ganbara eta garajea.
- Pedro Pablo Astarloa: 3 logela, komuna, egongela eta sukaldea.
- Intxaurre: Apartamentua. Logela, komuna, sukalde-egongela jantokia, ekegitokia eta trastelekua.
- Barrenkale: AZKENEKO DUPLEXA. Eraiki berriak.
- Herriko Gudarien kalea: 3 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea. 2 terraza eta garaje itxia.
- Astarloa: 3 logela, egongela balkoiarekin, sukaldea, eta komuna. Ganbara.

IURRETA

- 2 logela, komuna, sukaldea eta egongela balkoiare- kin. Igogailua. Gas naturaleko berogailua. Prezio interesgarria.

MATIENA-ABADIÑO

- Txinurrisolo: 3 logela, komuna, egongela eta sukaldea balkoiarekin. Prezio interesgarria.

JAKA

- Apartamentua. 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Garaje aeta trastelekua. Estreinatzeko.

TXALETAK SALGAI

ABADIÑO

- Mendiola. Bifamiliarra.Eraiki berria. Estreinatzeko.Informazio pertsonalizatua.

BAUTISTA
MUEBLES Y DECORACIÓN
LLODIO ABADIÑO

Solitario zoragarria landuriko diamante distiratsurekin

Lehen: 2.187,00 €

Orain: 113,00 €

Zuk sinesten duzu?.....Guk ere ez

Orain benetako harribitxiak aurkezten dizkizugu

BAUTISTA BEHERAPENAK

www.bautistamuebles.com

Santa Cruz poligonoa 1 zk LAUDIO (A-68aren 3 irteera) Urbitarte poligonoa 4 partzela, 2 pabiloia ABADIÑO (Eroski ondoan)

BEZEROAREN ARRETARAKO TELEFONOA: 94 672 77 00



Iñaki Sánchez
Irakaslea

Muxu piloa

Euskal idazle batek poema batean zera idazten du: "Nola joan gara hasierako muxu goxo eta laztanetatik gaurko musu hotz eta errepikatueta-ra?". Egia da denborak ez duela barkatzen; ez, ez dauka gupidarik. Baina, tartean beste faktoreren bat ere badagoelakoan nago. Agian, ekonomiak lagun dezake. Zientzia honetan, "errendimendu gutxiagotua legea" deritzona dago. Horren arabera, gertakari batek balioa galtzen du gertakari hori askotan errepikatzen bada; maiz izaten den jazoerak ez du baliorik. Hots, lehenengo muxuak hainbeste balio badiu, bigarrenak gutxiago, hirugarrenak gutxiago eta horrela balioa galdu arte. Itxuraz, gizakiok lege horren menpe bizi gara.

Gauzak horrela, hobe da lehenengo laztana hamaikagarrena baino; hobe lehenengo besarkada hamaikagarrena baino; hobe lehenengo... hamaikagarrena baino. Eta horrela beti? Auskalo! Izan ere, ekonomian ere badago beste printzipio interesgarri bat: "Epeluzeko adierazle txikien pilaketa" izenekoa. Azken horrek egiaztatu bezala, inbertsio txiki eta zuzen askok luzaro ekar dezaketen etekina handiagoa izan ohi da, estrategiaz beteriko bat-bateko mugimendu ausart eta azkarrak ekar dezakeena baino. Hau da, adierazle txiki positibo askoren batuketan egundoko etekina izan dezakegu. Ondorioz, laztan txiki goxo askoren pilaketa lehen laztana bezain zirrargarria izan daiteke. Akaso, lehenbizikoa baino hobe, iragana idealizatzen ez badugu. Ez al du denborak ardoa ontzen? Tira, badoa pilatzerako aurrenekoa: muxua! A, pazientzia apur bat!

"Odolostea bera bakarrik eta laban eginda dago gozoen"

Bizkaiko Odolosten Munduko XV. Txapelketa irabazi dau Txema Alberdi harakinak

Zilar koloreko txarritxo bat dago Alberdi Harategiko mostradorean. Bizkaiko Odolosten Txapelketako garai-kurra da, eta harro erakusten dau Txema Alberdi harakinak. Izan be, Bizkaiko Odolosten Munduko XV. Txapelketan 96 odolkitatik Alberdirenekoak izan dira gozoenak. Odolosten txapelkunak urteak daroaz odolkiak prestatzen, amagandik eta amagandik ikasitako errezetaz. Sekretu bakarra kalitateko osagaiak xehe-xehe egin eta astiro-astiro nahastea dela dino.

Igarri dozu saria irabazi izana salmentetan?

Dezente. Esango neuke lehenengo asteetan dobleraino edo igo zela odolosten salmenta.

Bizkaiko odolostea da zuek egiten dozuna. Zer dauka odolki mota horrek?

Kipula, porrua, odola, koipea, gatzeta eta espeziak norbere gus-tura, eta, arzoa eukiten ditu. Arzoa % 10 gehienez. Hori da oinarria. Gero, hortik aparte, bakoitxak gura dauena sartzen deuto. Bizkaiko odolostearen berezitasuna arzoa da; Gipuzkoakoak, adibidez, ez dau edukitzen.

Eta arrozak zer egiten deuto odolosteari?

Gorputza emoten deuto, eta suabetu egiten dau. Odolki batzuek asko errepikatzen dabe, eta arrozak gorputzarentzat ondorio motelagoak izatea egiten dau.

Orain duela zenbat denpora hasi zinen odolkiak egiten?

Ia bizitza guztia daroat honetan. Orain dela 20 urte hasiko nintzen odolkiak egiten, eta arinago nire amak eta nire amamak egiten zitueen. Iurretako Santa Apolonia-

ko baserri bateko errezeta da gure familiarena.

Saria irabazteko zer daukie berezia zure odolkiek?

Ez daukie sekreturik; holan urte-tan dau. Osagai guztiak ondo xehe-tuta edukitzea eta espezieta eta gatzetan puntu berezia topatzea da gakoa.

Txarrien eta osagaien jatorriak edukiko dau zerikusirik odolkien kalitatean...

Bai. Odola ez dogu hemen-go, baina txarriak eta bai, bertakoak dira. Txarriak Izurtzako Garate baserrikoak izaten dira, eta egia da baserriko txarriak beste toke bat duela. Txarriak eta lehengai danak. Astiro-astiro

egin, ondo zatitu, eta ondo amasatzea da kontua.

Behar leku handia emoten dau...

Gaur egun makinak dagoz, baina lehen bai, lan handia egin

behar zen dena txiki-txiki xehetze-ko. Lehen hainbeste ez zen egiten, lehen kantidad txikiagoekin egiten zen lan.

Zer janarigaz egoten da odolostea gozoen?

Nire gusturako, bakarrik ondoen. Labean prestatuta, bakar-bakarrik. Bere sekretu guztiak apreziatzeko. Guk gero harategian era guztietara

edukitzen dogu: odolosten fri-tuak, piper beteak...

Gaur egun denetik entzuten da, laster odolostearen izozkia beaurkituko dogu. Probatuko zeinke halakorik?

Zergatik ez. Gainera, nire odolostegaz egin bada, gozoa egongo da.

Zegaz ez zeunke jango?

Nikera askotara probatu dot, baina konbinazio guztiekin ez da ondo ezkontzen. Goi-mailako sukaldaritzan, ahatearen foie-gaz nahastuta jan neban, eta ez, horrek zaporeek txokatu egiten eben.

Zer sasoitan saltzen da odolostea gehien?

Hotzagaz erosten da gehien, azaroaren hasieratik otsailera. Guk urte guztian egiten doguz, baina neguan saltzen dogu gehien.

Aurten gehitxoago egingo dozuz...

Ni odolostea asko egindakoa naz, lehen beste harategi batzuetarako be egiten genduen, eta piloa egiten genduen. Eibartik Bilboraino, harategi askotarako egiten genduz. Orain gure harategirako egiten doguz bakarrik, baina obradore jarri genduen, urte batean 12 tona egitera heldu ginen.

Txema Alberdi •

20 urte daroaz odolkiak egiten

Alberdi harategiaren jabea



LA TOSTADORA

La Tostadora dendara hurbil zaitez zure etxerako monodosietako espressorik onena ezagutzera

Andra Mari Kalea, 8 (Durango) - 946 814 836

ESTARIDA

KENIA

FORZA

BUAVE

EINA

espresso